



Mikel Bujanda

Hartzaren urtea

Hartzaren urtea izan da aurtengoa. 1998: Hartza Nafarroara itzuli denekoa. Goseturik iratzarri da negualdi luzeko lozorrotik. Hatzaparka piztu eta esnatu du beldur atabiko lokartua: artzainen etsaigoa. Erronkariko artzaina eta hartza elkarren etsai dira berrero, mendeetan barrena izan diren moduan, iragan denboretara itzuli izan bagina bezala. Atabismoa berpiztu den arren, animismoa ez. Guztiz galdua da antzinako euskal jendeak beldur horri gehitzen zion begirunea, hartza gizakumeon arbasotzat joa izatetik heldu zena. Euskal jendeak ba baitzuen eboluzioaren teoria, Darwinek berea ondu baino lehenagokoa: *Gizona hartzetik jiten düzü, gizona hartzetik fabrikatürik düzü* (Tx. Peillen; *Animismua Zuberoan*, Donostia 1985). Hartzarekin batera itzuli behar luke kosmogonia zaharreko *totemak* eta hartza hiltzea *ür gaixtoko*, zoritxarreko, dela gogoan hartzeak. Heldu den udaberrian, agian. Oraingoan, menditarrek eta kaletarrok hartzaren etorrera era guztiz kontra-jarrarian agurtu dugu: hiria bizitoki dugunok lurraldearen gainerako bazter guztiak eder eta basa nahi ditugu, gure asteburuko atsedenerako. Hartza hor nonbait dela jakitea kilikagarria dugu. Aldiz, oihan ingurua lantoki dutenek erosotasuna galdu dute, ezin ardiak mendira bidali eta etxe barretik artzain izaten jarraitu. Ekologia turismo berdearekin nahasten den muga horretan, mendiko herriek hiritarron kolonizazio berria pairatzen eta onartzen duten unean, laborari izatetik hotel zaintzaile, otzan, bilakatzen ari diren honetan, bizimodu bat, egitura, (ez al da hori kultura?) begien aurrean desegiten ari den tenorean, galera hori guztia ixilean, lantururik gabe, gertatzen ari delarik, hustuketa demografikoa bezala, lurralde honetako eskualdeen arteko desoreka gero eta gordinagoa egiten den gisan, hartzarenak badu halako balio paradigmaticoa. Ez da noski urte

bakarraren neurrian ematen ari den joera; prozesua aspal-ditik heldu da. Baina aurten agertu da ikurra: *Bizi gaitezen denok Iruñerrian astegunetan; gainerakoa izan dadin atsedeen-leku, parke naturala, hartza eta guzti*. Horra lerro batean esana zertan gabiltzan. Hitz bakarrean laburtu nahi izanez gero, aipa hartzaren izena.

Honetara iritsita, dibagazioaren justifikazioa bilatzen astirik galdu gabe, hobe izanen da itzulinguru inproduktibo hauek utzi, kulturgintza *stricto sensu* hartu eta atal produktiboari heltzea. Kulturen ere produzitzea baita egin beharrekoa. Kanta ditzagun bada gure loriak.

Literaturan emankor

Urte emankorra izan dugu Nafarroan euskal liburuetan, eta harrigarriro dibertsifikatua literatur jenerotan.

Haurrak hautatu ditu Aingeru Epaltzak *Sorginkerien Liburu*-n. Haurrak ez badira, gazteak hartu ditu ikusmiran Patxi Zabaletak trilogiaren zama metafisikoak arindu dituen *Errolanen Harria*-rekin, hipotesi historikoak —balitekezoak— josiz, mitoaren geure neurriko bertsioa eraikiz.

Juanjo Olasagarrek *Mandelaren Afrika*-ra bidaiaria egin eta itzulitakoan, Hego Afrikaren erretratu bizia marraztu digu. Hego Ameriketara jo du Alberto Barandiaranek, Argentinara, militarren ankerkeriaren errelatoa egiteko *Ez zaigu ahaztu* testigantza minberatuan. Sorterritik atera behar izan gabe, denboran atzera egin du bidaiaria Xamarrek, *Garralda 1.898* idazteko. Herria suntsitu zuen sutearen kronika da, aurreko biak bezala fikzioen asmazioari bizkar emanez, kazetaritzaren lan esparruan kokatua; besteak ez bezala, Xamarrek aezkera hartu du solasbide, bakan baitira Aezkoako hizkera noblean belztuak dauden paperak.

Patziku Perurenak *Etorrerakoak* eskaini dizkigu. Gipuzkoaldean den periodiko batean aurrez argitara emaniko eta, beraz, barnealde honetan irakurri gabeko artikuluen bilduma. Jipoiaren bat edo beste astitzen du hor Patzikuk, baina gehiago dira inguru hurbilari samurki emaniko begiradak.

Isidro Rikarteren *Desioen hiria* opera prima —narrazioan; olerki batzuk argitara emanak zituen orain baino lehen— eleberri labur, ausart eta gordina, eta Pello Lizarralderen *Un ange passe* birfindua dira Iruñalde honetan egosi diren beste tituluak.

Beste parajetan eginak itzultzekotan, hori bai, idazle frantsesak nahiago. Balzac hautatu du Pedro Mari Diez de Ultzurrunek, Guy de Maupassant Matias Múgicak. Celine-rekin gainezka egin arteko betekada hartu ondoren, arinago eginen ahal zaio Matiasi oraingoaren liseriketa!

Margolari frantses batek, nola ez!, eman dio abiapuntua Jon Alonsori *Camembert helburu* jotzeko. Entsegua fikziozko tramaren eitearekin.

Argitalpenen zerrenda honetan badu tarte eta parte egile berrien lan sarituak biltzen dituen liburuak, Iruñeko Udalak prestatua. Besteak beste, Alfredo Jaime, satrapa bokazionala, alkate genuen denboretan zentsuraren pean argirik ikusi gabe gelditu ziren komikiak ilunpetik atera direlako.

Edo herrialdeko argitaletxeetan plazara atera diren beste lan probetxosuak, *Axularren historiak*, gure klasikoaren ezagutzaren proposamena, lastrea kenduta.

Ahaztu gabe Aita Polikarpo Iraitzozkoa zenaren *Hitz neurtuzko lanak*, sonetoak eta beste, ugaritasun handian, Ondarra jaun euskaltzainak apailaturik. Luzagabe agertze-koak dira autore beraren *Hitz lauzkoak*.

Egileen geografiari ez, testu barnekoaren nondik norakoari begiraturik, Nafar literaturatzat jo behar genuke Andolin Eguzkitzaren *Herioaren Itzalpeetan*, Javier Cunchillosi omen eta aitormen eginez. Horretara jarrita, Joxemari Iturraldearen *Kilkirrak eta Roulottea*-k Nafarroan itzulinguru batzuk egiteko mugona izan duela esan behar genuke.

Ez da gutxi, ez dago gaizki. Euskal letretan, *lurraldeta* -*sunaren printzipioaren* arabera, Nafarroari doakion kuota betetzeko adina ote da?

Bat aukeratzeko eskatzen didanari, 98 honetan, Xabier Erize Etxegarairen *Nafarroako euskararen historia sozio-linguistikoa* emanen diot, interesagatik, garrantziagatik, berrietasunagatik, sakoneragatik. Izenburuak agintzen duena baino gehiago dakar lan horrek. Kontzeptu teorikotan

aberats eta mamitsu da, berritzaile ikuspuntuaren aldetik, hizkuntzaren galera prozesuaren historiari berrikusketa kritikoa egiten dio, soziolinguistika historikoaren ekarpenaz berri ematen du, eta horren aplikazioa egiten, metodologia garden eta antolaketa argiarekin.

Historia kontuak espainolez

Espainolez idazten duenik ere bada gure artean, etzazuela bestela pentsa. Pare bat ale aipagarri —historia liburuak dira biak—: bat aspaldi urruneko gertakariena, *La Navarra marítima*, Nafarroa itsasertzeraino hedatzen zen denboretakoa, gero amets eder baizik izan ez dena. Egiatzko izan zitekeen eta izan ez den historiaren mina. Dokumentazioan oinarriturik, Nafarroako historia ofizialaren bestaldea erakusteko baliotsua. Zailago da ordea iragan den horretan oinarri topatu nahi izatea aldarrikapenik eraikitzeko. Hala ere baten bati bide eman dio giputzak epatatzen ahalegintzeko: liburu horretan ikusten baita *Gaztelaren asmazio hutsa dela Gipuzkoa, Nafarroako erreinuari aurre egiteko asmatua*.

Hurbilagokoa da beste historia liburua: *Diccionario Biográfico de los diputados forales de Navarra (1931-1984)*. Ez da urrutirago jo beharrik Nafarroa alde honetan zertan gabiltzan ulertzeko. Diputado Foralen Biografiak errepassatzea aski da. Hori da jendilajea! Falanjista gaixto, Franco bera baino frankistago, kazike, Euskal Herriaren etsai, demokrazia arrasto guztien aurkako. Horieta eduki dute mendean Nafarroa azken hirurogei urteotan. Eta liburu berean ongi ageri denez, mende hasierako eta aurreko mendeko jauntxoek oinordeko dira. Horien itzalpean erai ki da egungo status ukiezina. Liburu honek, beste irakaspenez gain, orain 21 urtekoak nola izan ziren gogora ekartzeko balio digu. Baten bat oroituko da, Marco, Asiain, Iturralde, Fortun... nola aritu ziren demokratizatzearen aurka, bunkerrean iraun asmoan, nola ateak itxi zizkieten Nafarroak beste euskal lurraldeekin batera bide egin ahal izateari. Komeni da ez ahanzte Amadeo Marcoren doktrina zertan laburbiltzen zen: *Nafarroaren nortasunaren bi hor* -

nigaiak, foralitatea eta espainolotasuna dira. Horrela jokatu zuten, eta jokoa irabazi. Horretan gaude oraindik ere.

Fundazioen porrota

Fundazioen porrota edo zergen iruzurraren tamaina. Era-kunde musikalen egoerari azterketa egin ondoren aurki liteke zergaren iruzurra zenbateko handia den neurtzeko termometroa. Aise ulertuko duzue: enpresa pribatuan konfidantza duen agintaritzza dugu, eskuindarra, neoliberala nahi baduzue. Interes kulturala, edo artistikoa duten era-kundeetarako finantzazio bila joz gero, Administrazio Publikoak guztira iritsi ezin duela eta kapital pribatua jokoan jarri behar dela izaten da erantzuna. Honela, aspaldian ari dira Fundazioen egiturari indar ematen, diru publikoaren ondotik sozietate partikularretatik heldu dena gehituko zaiolakoan. Pablo Sarasate Fundazioa sortu zen, beraz, Diputazioak sos batzuk jarri, eta gainerakoak kapital pribatutik etorriko ziren ustean; uste, honetan ere, ustelean. Tramendu itxuraz erakargarria eskaintzen die Diputazioak: abantaila fiskalak, zergen aringarriak... Ez da hala ere, aski estimuloa. Fundazioen sistemak ez du funtzionatzen. Ez da enpresarioen interesekoa. Mozkinen gaineko zergak ordaintzeari ihes egiteko ba baitute aski trikimailu, legezko eta ez, Fundazioek ematen dieten abantailen gaintetik. Zergak ordaindu behar ez izateko bide zabalak daude, iruzurra handia da. Iruzurrari aurka egiten ez dion bitartean, alferrik du Administrazio Publikoak sektore pribatuari dei egitea. Huts egin du Pablo Sarasate orkestrari sendotasun finantzieroa emanen liokeen Fundazioak. (Huts egin duen bezala Indurainen izena hartu arren, kirolariei dirulaguntzak eskaini behar lizkiekeen Fundazioak). Egoera honetan zinez patetikoa da Migel Sanz diputazioburua apelazio patriotikoak egiten aditzea, Sarasate orkestrak *guregan sortu behar lukeen pertenezia sentimenduagatik* egin behar du nafar zintzoak bere orkestraren alde.

Bi hitzetan, nahi eta ezinean. Euskadiko Orkestra Sinfonikoa handi ikusten da bere ia ehun musikariek. Ttipi-

tto da haren ondoan, Sarasate Ganbera Orkestra. Konplejoak sortzen ditu horrek, hemen guztia besteen hainakoa egin behar baita, besteen gainekoa ezin denean. Musikari zaion maitasunagatik baino gehiago, Euskadikoen pareko izateagatik orkestra handia nahi lukete hemen. Horren erdia ere ez zaio eramangarri egiten gure agintaritzaren kulturari. Nahi omen du, baina dauden diruak ez dira kulturarako.

Iruñeko Orfeoia, laugarren zuzendaria du lau urteotan. Ez da seinale ona. Urtebetea doi-doi egin zuen Koldo Pastorrek. Urtebetera ez da iritsi Pascual R. Aldabe eta alde egin du. Norabiderik gabe dabil orfeoia.

Rematxa, Ziga eta beste

Kronika osoa balitz, aditzera emanda utzi beharrekoak liriteke, Gaiarre antzokia Iruñeko udalaren eskuetara itzuli izana; Erraldoien Txokoa esaten zaiona ohiko bilgune bihurtzen ikustea; Nafarroako Biblioteka Nagusiarena premia larritzat joa izan arren, pausorik aurreratu ez izana; Altuzako Oteizarenean gruak xut antzeman daitezkeela goarda zinegotziaren begirada makurpean; Nafarroako aurtengo Kultur saritua Montxo Armendariz izan dugula (hiru urtez segidan saria nafar euskaltzaleek irabazirik, apostu segurua egin dezakegu zein ikusmolde ideologikoa izanen den heldu den urtekoa); Fernando Rematxaren urtea izendatua dagoela 98 hau; Rematxa bezala, 36ko gerraren galtzaile izan zen Zigaren erakusketa antolatu dela. (Zer pentsatua ematen du bi artista hauengan gerrak izan zuen eraginak: Rematxak Madril utzi behar izan zuen. Bere kideak atzerrira jo zuen. Rematxak, Tuteran sorterrira itzuli eta etxekoen burdindegian aritu behar izan zuen. Musikarekin harremanetan jarraitu zuen, baina haren lan sinfoniko handienak ordura baino lehen eginak dira. Zigak bi urteko espetxealdia pasa ondoren, pintura sormenerako adorea galdua zuen. Beste hogeitun urtetan biziko zen, baina ez zen aurrekoa izan. Latza izan zen gerrak Nafarroako arte plastiko eta musikaletara ekarri zuen galera). ♣



Andolin Eguzkitza

Erdaretara iritsi beharra

Joan den igandeko arratsean heldu ginen etxera Euskal Idazleen Elkartearen izenean Donejakue Compostelakora «Galeuzca» biltzarrean parte hartzeko harantz joandako 15 euskal idazle. Aurtongo gaia «literatura eta arte plastikoak» izan da, eta gure izenean txostenak aurkeztutakoak, Jon Alonso txosten nagusiarekin eta Itxaro Borda, Hasier Etxeberria, Josu Lartategi, Anjel Lertxundi eta Josean Muñoz txosten txiki banarekin. Itxaro Bordak eta Josu Lartategik ezin izan zuten, haatik, Galiziara joan. Edozelan ere, txosten guztiak *Hegats* aldizkariko hurrengo zenbakian edo argitaratuko dira, idazleen elkarteko bazkideek gure ordezkariak Finisterran zer-nolako ideiak defendatu dituzten ezagun ahal ditzaten. Izan ere, literatura eta arte plastikoak elkartzen diren gunea izan baita eztabaiden alorra.

Urtero bezala egin dugu, Galeuzca biltzarrean parte hartzen dugun hiru elkarteetako batek antolatu eta beste herrialdeetatik 15na idazle joan, oraingo honetan 15 Euskal Herritik eta 15 Katalan Herrialdeetatik. Idazle galiziarrek arras ondo erabili gaitzuztela esan behar da, eta hango agintariak ez direla atzean geratu, alde batetik biltzarra egiteko utzi diguten tokiagatik, «Centro Galego da Arte Contemporanea», Xunta-k kudeatzen duena, eta bestetik bai Donejakueko Herriko Etxeak egindako harreragatik bezala, hala Coruñako Diputazioak bere esku daukan «Pazo de Mariñán» delakoan eskainitako afari ederragatik.

Bestalde, honelako biltzarretan beti bezala, gure arteko trukaketak izan dira parterik interesgarriena, Susan Montag-ek zioen bezala, horretarako baitira nagusiki idazleen biltzarrak: elkar ezagutzeko, elkarren berri edukitzeko eta batzuen eta besteen artean esperientziak trukatzeko, gure kasuan bezalako egoera baten batez ere, non oso an-

tzeko arazo eta problemak dauzkaten hiru herrialdetako idazleak biltzen baikara. Eta Jon Alonsok galdetzen zidanari erantzunez, hots, ea galiziarrek eta katalanek gure lanaren berri bazeukaten, guk geuk haiei beren beregi kon-daturiko eta azaldurikotik aparte oso berri txikia daukate-la erantzuten nion, euskal literatura oraindik itzultzen ez delako sistematikoki, eta gure hizkuntza, ezagun denez, ondo ikasi ezean harresi gaindiezina egiten baitzaio arrotzari.

Dauzkan merezimenduak direla bide, Bernardo Atxagak lortu du beraren lanak euskaraz argitaratu bezain laster erdarez ere ager daitezela, eta Anjel Lertxundi ere, se-gurutik, halako egoera bat lortzeko bidean dago. Beste idazle guztiak, ordea, salbuespuegak salbuespen, —eta ez dira guti itzulgarriak diren euskarazko lanak— ez dira er-daretara heltzen, eta halandaze lanok idatzi dituzten idaz-leek ez daukate ia aukerarik egindako lanaz bizi izateko, euskal merkatuaren txikia dela eta. Konponbide bakarra Euskal Gobernuaren esku dago: urtero-urtero Europako hizkuntza nagusietara hamar bat euskal libururen itzulpe-nak pagatu, h.d., alemanera, gaztelaniara, frantsesera eta ingelesera. Beharbada osatzekotan dagoen jaurilaritza be-riak emango digu horretarako aukera, h.d., dirua, euskal enpresei ere beren ekoizpenak atzerrian saltzeko ematen dien legez.

Idazle handi bat joan da

Aurton, bestalde, berri txar bat ere aipatu behar dugu, gerrosteko idazle nagusietako bat, Jon Etxaide Itharte hil da. Eta «nagusi» diot beraren obraren handiagatik zalan-tzarik gabe, eleberriak, antzerkiak, ikerketak eta artikulua-k idatzi baititu idazle donostiarrak. Baina «nagusi» ere utzi-tako obraren ederra eta kalitateagatik. *Joanak joan* eleberria baino ez da aipatu behar diodanaren erakusgarri. Oraindik ere gomutatzen dut non irakurri nuen eta zelan. Orain dela 15 bat urte izan zen. Txileko Santiagon nengoen, ikaskide neukan lagun baten etxean, herrialde hartan ga-

bon-inguruan 24 egun eman nituen parada baten. Eta zergatik ez dakidala Etxaideren liburua eroan nuen aldean. Are gehiago, ondo gogoratzen naiz zelan Etxaideren liburuaren ostean Valera-ren *Juanita la larga* izeneko eleberria irakurri nuen, eta zelan senditu nuen —arras idazlan desberdina izateagatik ere— garai bereko lanak irakurtzen ari nintzela, bata, espainiarra, XIX. mendekoa izanda eta bestea, euskalduna, ostera, XX. mendekoa. Baina are zorrotzago daukat akorduan zelako zirrara egin zidan Jonen idazlanak, Etxahun Barkoxeren ibilera eta bizitza nahikoa ondo ezagutzen banituen ere Haritzelharren lanak irakurritariki: ikaratu ninduen, hasieratik lotu eta liburua amaitu arte ezin izan nuen eskutik laga. Argi eta garbi: ordurarte euskaraz irakurritako eleberririk onenetariko bat, bai prosaren ederra zela bide, zein istorioa erabiltzeko teinkaduragatik. Eta ez da harritzekoa, Etxaide gerrosteko idazleekin egiten delako idazle, hots, lagunmin zeukan Mirandekin, *Euzko-Gogoa*-rekin eta *Egan*-ekin, h.d., aldizkari horietan idatzitako idazleekin, erran nahi baita, Larreko eta Manezaundi aparte utzita —berauek ez baitzuten inoiz tradizioarekin apurtu— hegoaldean tradizio zaharrari berbegiratzen hasten denean, eta gerraurreko garbitasun eta berritasun linguistiko antzuko garai latzak alde batera uzten, literatur hizkuntza garatzeko bilakabidea ostera ere aurretik zetorrenarekin lotzen hasten denean, alegia.

Laburbiltzeko, gaien erabileran guztiz tradizional izanda ere —«eleberri girstinoa» zeritzon bere idazlanari—, literatur hizkuntzaren eta kontzientziaren ikuspegitik aski modernoa den idazlea, idazle-kontzientzia erakusten hasi baitzen alde batetik, eta literatur hizkuntzari Aresti, Mirande eta Txillardegirekin batera bultzada izugarria emateko gauza izan zelako bestetik.

Literatur hizkuntzaz

Amaitzeko, Ibon Sarasolak Baionako bere mintzaldiarekin eragindako katramila aipatu gurako nuke.

Labur-labur, eta komunikabideetan irakurri zein entzunagatik bezala, hala bertan entzule egondako batzuen iruzkinengatik, funtsezko den arazo bat erabilia ere, «literatur hizkuntzaren garapena Iparraldean», eta ideia garrantzitsu eta interesgarriak aipatuta ere —nik neuk ere defendatuko nituzkeenak segurutik— kolonialista baten mintzaldia edo izan bide zen.

Orduko hartan Sarasola, aldez aurretik hainbeste hegoaldeko aterbetu politiko bezala, irakasle joan bide zen, eta dirudienez haiek besteko arrakasta bildu, neurri ez txiki baten, nire ustez, euskal literatur tradizioaren ezagutzaille aparta den neurrian, hori egiteko eskubidea eduki arren. Arazoa, nonbait, adibideak jarri zituenean agertu ziren, ikuspegi linguistikotik egin behar ez denaren adibide bere burua eta bere lagunak ipini beharrean gaztetan eta sutsu Lur argitaletxearekin hasi zirenean, bertan entzule zegoen Antton Luku ipini bide baitzuen, hots, gaur egungo Iparraldeko idazleetan dagoen esperantzarik ederenetariko bat, beraren antzerkiak, artikuluek eta oraintsu argitaratu duen ipuin liburuak agerian uzten duten bezala.

Arazoa benetakoa da. Ezin dugu debaldean tradizioarekin apurtu eta gure historia bazterrean utzi. Areago, euskaldunok ezin abia gaitzke batzuk gaztelaniaren bidetik eta frantsesaren bidetik besteok. Horrek heriotza segurua dakarkiguke herri gisa. Eta halaz ere —argi eta garbi derradan— hegoaldekook gara hor errudunago iparraldekoak baino, ez dugu euskal literatura itolarritan utzi zuen gure mende honetako lehen lau hamarkadetako bolada hiper-garbizale eta tradizio-hiltzailea besterik aipatu behar, edo Ibonen beraren belaunaldiarekin, 64ko belaunaldiarekin gauzatu zen gaztelaniaren gainean eraikitako erantzun oldarkor eta neurrigabea, oraino ere, Ibon bera ederto asko konturatzen datekeenez, gaingitu ez duguna. Espero baino ezin dugu egin, edozelan ere, sortu diren arazo eta haserreak ez direla debaldean izanen eta euskal literaturak bizitza sendo eta osasuntsua segurtatzen dion bidetik segituko duela. ¶



Elixabete Garmendia

A medida que la opinión va convenciéndose de que el agonizante euskera no muere sino que revive, nuestros enemigos se multiplican. ¡Bien venidos sean esos enemigos que son espejo de nuestra propia resurrección!

Laurogeita gehiago urte joan dira Gregorio Mujika kulturgizon euskaltzaleak hitz hauek bota zituenetik, garaiko oratoriari zegokion gar guztiarekin seguraski, Bilbo-ko Campos Elíseos zineman, Euskal Esnaleakoek, ordurarteko markak hautsiz, bost mila lagun bildu zituzten ekitaldian. Tonu dezimononiko mitineroa erantzi eta jar ditza-gun egungo hizkera arruntean: euskara —eta horrekin batera euskal kultura— esparru eta maila berriak irabazten doazen neurrian, are eta erretxinago azaltzen dira kontrarioak. Zerbaitegatik izango da.

1998an zehar ez da horren adibiderik falta izan. Barraketako tiroa ematen zuen honek sarritan, etengabeko mugimenduan doazen figuratxo horiek begininian, tira-tzaile koadrila apuntatzen: AEK bahiketa simulatzen zuen ariketarengatik, hizkuntz politika Sailburuak omen dituen kapritxo soziolinguistikoengatik, Elkarlanean argialetxea historiako testuliburuengatik, Hezkuntza humanitateen Madrilgo dekretoa ez onartzeagatik, Gasteizko Legebiltzarra kirola arautzen duen legearengatik... Mugimendua non, tiroa han. Tiraldi guztien artetik luzituena libeloa izan zen, besteak beste zabalkunderako erabilitako bidearengatik: denok isilpeko konspiratzaile bihurtu gintuen aste batzuetan zehar, fotokopiaren ehungarren edizioa irakurtzen, harri filosofala deskubritzeko zorian bageunde bezala. Azkenean, egia bat edo besteren artean porru galantak irensteko.

Erasoen aurrean lehenengo erreakzioa biktima sentitzearena da. Beraz, har dezagun ordulaurden autogupidan xahutzeko. Hortik aurrera, ez gaitezen auhenaren tenta-

zioan erori. Kailua zapaltzen digutenean erantzun bai, behar izan ezkerro zaplastakoz, ahal bada Rita Hayworthen eskularru leuna jantzita, besoa ondo luzatuz. Hori egin, zetazko goantea erantzi eta jantzi dezagun lanekoa, esku-bete dago eta.

Eszenario berria

Politikak arteari lapurtu dio hitza: eszenarioa. Irailaren 16ko gauean altxa zen teloa, aurretik *première*-ak entsaiatu eta gero beste arlo batzuetan. Halakoa izan zen iazko urriaren 18koa Gernikan, ELA-LABen lankidetzaren berrestez gain, berorien ekimen gaitasuna jendarteratu zuena. Oihartzun apalagoarekin, kulturagintzan bazetarren estilo berria: AEK eta Kultura Sailaren akordioa lekuko. Edo Euskararen Kontseilua euskalgintzako sektore guztietara zabaltzea. Eta Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak bere baitan indar anitzak biltzen jakitea. Kontuan hartzekoa da, halaber, Herri Batasunak lehen aldiz zer eta kirolaren legeari ematea babesa Gasteizko Legebiltzarrean. Politikagintza puruari gizarte eta kulturaren arloetako ekimen partzial baina esanguratsuek ireki izan baliote bezala bidea, kontsentsua lortu duten heinean. Esperimentu gisa ez dira gaizki egon, beste esparru batzuetarako eredugarri eta erakusle gertatu dira nolabait, aitzindari nolana ere. Norabide zuzena dirudi beraz horrek, baina ezin errentetatik bizi. Kulturagintzak badu bere eginkizun jakina, eta ez makala, eszenario berria. ETAK su-etena aldarrikatu ezkerotik gizarte zibilaren esku dago testigua. Tazitoki uler zitekeen hori, eta ulertu da zenbait girotan, baina gainera espreski ere esana dago. Han-hemenka aipatzen da usu lanari ekin beharra. Joseba Sarrionandiak berriki jasotako lelo ez hain berriari helduz, «eman dezagun denok apur bat, apur batzuek dena eman beharrik izan ez dezaten». Politikoen badituzte beren eginkizunak. Sindikatuak eta bakegintzarako jardun duten gizarte mugimenduak ez dira atzera geratuko honez gero. Kultur munduak orain arte egindako saiakeretan sakondu eta erronka erakargarria

dauka eskuartean: gizarte sareari arnasa ematea, puzzlearen zatiak koherentziaz lotu eta identitatea mamiz betetzeko. Horretarako gure arteko inkomunikazio leizeen gainetik zubiak altxa beharko ditu, besteak beste herri honetako sektore ezberdinek bizi izandako esperientzia traumatikoei zukua atera eta poetizatuz.

Ebakietatik aniztasuna

Herri desegituratua gara, puskatan zatitua, dozenaka lezroez ebakia. Bi estatutan eta hiru barrutitan banatzen gaituen hori lodiena. Gutxi batzuk kenduta, Hegoaldekoa arrotz sentitzen da Iparraldean eta alderantziz, zibilizazio ezberdinak bizi ditugula agerian utziz behin eta berriz. Hori nahikoa ez balitz, Euskal Herriaren ikuspegi erredukzionista hori daukagu barneratua, mendi berde eta baserri txurietako postaletan isladatzen dena. Eta dena osatzeko, probintzialismoak zulatzen gaitu.

Hegoaldean, gainera, etorkin andanaren ondorio, bi komunitateen bandera astintzen du edozein haize boladak. Alderdi estatalistek planteamendu horri oraindik errentagarritasun politikorik ateratzen badiote —eta baietz dirudi—, kultur integrazioa zintzilik dagoen seinale. Aspaldikoa da Letek haur andaluz bati eskainitako sehaska kanta, dantza flamenko batez zoragarri nahas litekeena. Oraindik orain flamenkoa eta txalaparta zeinen egoki nahastu eta osa daitezkeen erakutsi dute Angela Cruces bailorarak, Luis Camino perkusionista donostiarrak eta Intxaurrondo eta Alzako ijito koadrilak. Salbuespen dira, hala ere, halako mestizajeak, eta gutxi batzuek bakarrik bizi dituzte jatorrizko kultura eta hemengoa parean, naturalidadez. Aboriginok, abizen nahasketarik gabekook, errezeloz begiratzen ditugu oraindik haien kanta, dantza eta ohiturak.

Ebaki gehiago ere badira ordea, gurean, herria eta hiriarena adibidez. Kontzeptu erakargarria da oso hau, euskal hiriarena. Bernardo Atxagak aldarrikatu berri du eta bere hitzek bat baino gehiago jarri dute goardian. Ez dut

uste Asteasukoak bere herriari eta antzekoei muzin egiteko inolako asmorik izango duenik, ez litzateke koherentea bere obrarekin. Nere iritziz, beste ikuspegi batetik ulertu behar da bere proposamena. Kontua da euskal unibertsoak oraindik tentsioan bizi dituela herria eta hiria, txapela eta sonbreroa, bertakoa eta kanpotik datorrena, batak bestearen ukazioa balekar bezala. Hori eguneroko bizitzan geroz eta gehiago nahasten diren arren binomio horiek denak.

Honenbestez ezin ukatu gure izaera eta jardun kolektiboaren ezaugarriak behinena aniztasuna dela. Osagai ezberdin ugariren batuketak. Batzuk aktiboagoak dira, eragileagoak. Beste batzuek pasibidadean irauten dute, baina iraun, lozorroan besterik ez bada ere. Guztien arteko integrazioa litzateke helburua. Zertarako? Puskatan dagoen herri honetako multzo bakoitzak guztien arteko identitate kolektiboan aisa eta eroso aurki dezan bere burua. Gipuzkoarrak ez dezan pentsa inor baino euskal-agoa denik, nafarrak ez dezan nafartasuna eskusibide gisa bizi, zuberotarrak ez ditzan besteak manex modura ikusi; hemen kokaturik dauden gailego eta andaluziarrek, extremadurar eta gaztelauak kontraesanik gabe bizi dezaten izaera bikoitz hori; herritarra ez dadin hirian akonplejatu eta hiritarra ez dadin Marten bezala aurkitu herrian.

Traumak poetizatu

Panorama hau azken hogeita hamar urteotan gertaera traumatiko ugari bizi izan ondoren zabaldu zaigu. Begi bistakoa da herri honen dinamismoa, egoera latzenek ere geldiarazi ez dutena, baina bai baldintzatu. Ezikusiarrena egitea izan da sarritan salbazioa, aurrera begiratu bai baina aldamenetara bistarik desbideratu nahi ezta. Oinazeak, hurbilen bizi izan duten haiengan, belaunaldiak beharko ditu izkutatzeko. Baina badago sufrimendutik etekin positiboa ateratzeko modurik: esperientzia gordin horiek poetizatzea. Arteak, edozein dela ere adierazpidea, egin dezake hori. Bidean geratu direnen istorioak plazaratu, egite kolektiboak berridatzi, gatazkaren gorabeherak miatu. Mate-

rialerik ez da falta. Alderdi friboloenetik begiratuta, abentura eta akzio sobera dagoelako; sakonagotik begiratuta, ideia, jarrera eta jokabideen mamia aztertzeak merezi duelako.

Edozein herrialdek egin du hori, Europak Mundu-Geuren ondoren, Estatu Batuek Vietnamgoa pasata... Sarritan kontzientzia lasaitzeko ariketak besterik ez dira, baina badirudi gizateriak, zorigaitzen ondoren eta beste erremedio-rik ezean, horretara jotzen duela. Oraingo gure kasuan, Irlanda gertatzen zaigu honetan ere aitzindari; han bake hotsa zabaldu bezain laister zinema politikoak izan duen garapena kontuan hartzekoa da. Komertzialtasunari uko egin gabe, Irlandako historia garaikideko pasadizoak zabal-tzen ari dira munduan zehar. Gurean ez dago osaba ameri-kanorik haren azpiegituraz baliatzeko, baina apaltasun osoz, badago gaia eta jakituria nahikoa hainbat istorio kontatzeko. Idazleak hasiak dira oinarria jartzen; horren ondotik zineak etorri beharko luke, jakinekoa baita hemen eta nonahi zinea dela bitartekorik egokiena publiko zaba-lenetara iristeko.

Joseba Zulaikari entzuna diot, hortik zehar, Europan eta Ameriketara antropologoaren artean dabilenean, saihestu ezinezkoa izaten dela galdera: «argitu al da euskaldunen misterioa?». Harrotu ere harrotzen du apur bat antropolo-goentzat interesante izate horrek, baina honez gero miste-rioa argitzeak baino errenta hobea emango digu eginkizun daukagun puzzle hori osatzeak, eta horretarako urratsak nola daramatzagun kontatzeak. Sustraiak gordetzen jakin izan dugun seta berberarekin heldu beharko genioke erronka horri. Iraganeko euskal misterioaz galdetu ordez, balizko mosaiko hori nola osatu den aztertu behar izan dezatela antropologoek. Eta nonahiko herritarrek jakin de-zatela hemen, Pirinioaren bi aldeetan, badela irauten eze-zik, bakea kudeatzen dakien herri bat. Interesa pizten segi-tzeko moduko atakan baikaude, zalantzarik gabe. ♣



Inaki Irazabalbeitia

Don Karlosen apaltasuna

1997a goibel joan zitzaigun. Urtearen hondarrak euskal intelektual finenetako bat eraman zuen: Karlos Santamaria. Bere ekarpen bikain eta bazterrezinen laudorioa egin zen egun haietan eta, beraz, ez dut horretarako hona ekarriko Don Karlos.

Harreman pertsonal bakan batzuk izan nituen Don Karlosekin, ez oso sakonak bestetik, eta bere apaltasunak harritu ninduen beti. Euskal munduaren garapenean horren eragin handia izan duten ekintzen eta ideien bultzatzaile izandako pertsonak «oso ondo ari zarete Elhuyarren» esan zidan behin baino gehiagotan eta gero gure lanaren laudorioak etortzen ziren. Harri eta zur uzten ninduen. Nik eskertu behar nuen Don Karlos, Santo Tomas Lizeoko ikasle ohi eta Udako Euskal Unibertsitateko partaide izanagatik edota formulak euskaraz leitzeko emaniko moduagatik eta, aitzitik, bera zen eskerrak ematen zituena. Horretan zetzan, ezpairik barik, gizon txiki-handi horren handitasunaren zati garrantzitsu bat.

Beste gai bati heldu aitzin proposamen bat bota nahi dut aukera hau profitatuz: inoiz euskal unibertsitatea abian jartzen bada, *Karlos Santamaria* izena behar luke izan.

Sarasolaren itzulera

Ibon Sarasola badator Euskal Herrira bueltan. Katedradun bihurtuta Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Institutuaren buru izango omen da aurrerantzean. Ongi etorri. Beti izan naiz ni atzerrira joandako garunak berreskuratzearen aldekoa, baina Ibonek, aitor dezadan, beldurra ematen dit. Bere izaerak eta gauzak adierazteko duen berezko «xa-

murtasunak» hizkuntz eztabaidak komunikabideetako sesio linguistiko bihurtu dituzte eta hori ez da, nire iritziz, hizkuntz ereduari buruz egon daitezkeen eztabaidak bideratzeko modurik egokiena. Duen jakinduria osoa aitortzen diot Iboni, besteak beste Orotarikoaren giltzari esker euskarari buruzko beste inork baino datu gehiago dituelako, baina etxeratzen zaigun honetan, eskertuko nioke azken hogeitau urteotan egin den lanari eta hori landu duten pertsoneri orain arte erakutsitakoa baino errespetu gehiago izatea. Dena dela, *El País*-en egin berri dituen adierazpenei jaramon eginez eta nora datorren kontuan harturik («*los textos universitarios son los que tienen un euskera de peor calidad*»), ez dirudi jarreraz aldatzeko izpirituarekin itzuli denik.

Ez nuke horrela izatea nahi, gure hizkuntzaren egoera soziolinguistikoak ezin du onartu bere akats eta guzti ibili dabilen eredu bat etengabe zalantzatan jartzea. Arazoa, lagunak, ez da eredu bera, berori baliatzen duten hiztun eskasak baizik eta antzeko euskara motz, kamuts eta higatua egingo lukete bestelako edozein eredurekin ere.

Ongi etorri, hala ere, Ibon.

Xirrista eta Kometa itzali dira

X*irrista* eta *Kometa* joan zaizkigu. Otsoak ez du abisu larrikirik jo ardia jan aitzin. Penatuta nago. Hura festa hileroko-hileroko *Xirrista* etxera iristen zenean. Nire seme zaharrena Eñaut, sei urte doi-doi, esku batean lapitza eta bestean *Xirrista* etortzen zitzaigun esanez «eta hemen zer egin behar da». Bukatu da hileroko festa gure etxean eta Euskal Herriko beste hamaikatzotan. Betirako izango al da? Ezetz iguriki dut, zinez. Zerk hil ditu *Xirrista* eta *Kometa*? Kalitate ezak ez behintzat, Euskal Herrian argitaratzen diren ume produktuen artean puntakoak baitziren, ene irudiko. Harpidedun gutxiegi? Gurasoen axolagabekeriak? Enpresa-egitura desegokiak? Laguntza gutxiegi?... Ez dut nik erantzuna. Dena dela, arrazoi horien guztien eta beste batzuen koktelak hil du, hain segur, gure hileroko festa. Bepizteak mereziko lukeela uste dut. Zeinek helduko dio?

Euskaltzaindia motel

Euskaltzaindiaren jarduerak kezkatzen nau. Euskara ziztu bizian irabazten ari da esparru eta erabilera berriak eta Euskaltzaindiak ezin dio erritmo horri jarraitu. Berak behar du euskaren estandarizazio- eta batze-prozesuaren gidaria izan, funtzio hori onesten baitiogu euskaldun orok, baina ez da lan hori egiteko gai, ezintasunez. Egun Euskaltzaindiak dituen azpiegitura eta giza baliabideak ahulegiak dira gizarte honek eta herri honen erakunde publikoek agindu dioten lana betetzeko. Izan ere, errealista izanik eta ñabar-dura guztiak eginez, baliabide murritzez hornitutako amateur batzuek egoki hornitutako profesional batzuek egin beharko luketen lana egiten ari dira. Zer dira, bada, euskaltzainak? Beren lanbideek uzten dieten ordu libreak euskararen alde erabiltzen dituzten jaun-andere jakintsuak.

Ezintasun horren adibide paradigmaticoa euskara baturko hiztegia. 20.000 hitzeko zerrenda osatuko da 2.000. urterako. 1992an hasi zen Euskaltzaindia hitz-zerrenda horretan lanean. Beraz, batez beste, 2.500 hitz-forma erabakiko dira urteko edo 208 hitz hileko edo 7 hitz eguneko. Aski martxa motela! Eskerrak hitzen forma baino ez dela erabakitzen ari! Hitz guztien adierak zehaztu beharko balira... Denboran luzatzeak kalteak baino ez dakarzkigu euskaldunoi: etengabe ikasten eta desikasten, liburu-edizio guztietan hizkuntz zuzenketak egiten, hizkuntz liskarrak komunikabideetan, etab. Euskarak gizartean duen indarra ikusirik, ez gaude indarrak xahutzen ibiltzeko moduan.

Hiztegitantzen esperientzia apurra duen edornork, jakin badaki, profesional egokiz osatutako lantalde batek 8 urteko epe hori gutxienez laurdenera ekar dezakeela estuasun handirik pasa gabe. Profesional egokiak badira Euskal Herrian, Euskaltzaindian bertan zein kanpo, baina gure akademiak ez du lantalde profesional hori lanean jartzeko baliabiderik.

Erakunde publikoek euskararen alorrean Euskaltzaindiari gidari lana onartzen badiote, lan hori egoki, taxuz eta eraginkortasunez egin ahal izateko behar dituen giza eta diru-baliabideak eman behar dizkiote, bestela euskal

gizartea eta Euskaltzaindia bera engainatzen ari dira. Alabaina, Euskaltzaindiak ere jasotzen dituen baliabideak eraginkorrago usatzeko ahaleginak egin beharko ditu. Espe-rientziaz dakigu etxe horretan lanean ibili garenok, bertako lan-estiloak lotura txikiegia duela gure lantegiko estilo enpresarialagoarekin.

Euskal gizarteak, euskalgintzako agenteek eta erakunde publikoek bereziki, Euskaltzaindiaren eginbeharrak eta jarduerak gogoeta egin beharko lukete eta horren ondorioz euskararen eguneratzean gidaritza aitortzen bazaio, benetakoa izan dadin bideak jarri beharko dira.

Ondarearen eguna, frantsesua

Irisarrin Ondarearen eguna izan dugu aurten. Bi urtean behin Euskal Kultur Erakundeak antolatzen duen jarduera hau Iparraldeko errealitate kulturala ezagutzeko parada ezin hobea da. Euskaldunontzat samina da errealitate hori. Iparraldean euskara gainbehera doala ezaguna da eta Irisarrin bete-betean egiten dugu horrekin topo. Euskara marjinala da, Euskal Kultur Erakundearen ahaleginak aha-lerin. Elkarteen biltzarreko erakus-mahaien artean osteratxo bat egitea aski da horretaz jabetzeko. Aurkeztutako materialari, mahaien atzean dauden lagunen berbaroari, argazkien oineko testuei erreparatzea baizik ez dago nagusi frantsesez mintzo direla ohartzeko. Euskal Herriko on-darea da erakusgai, baina arrotz mintzo da.

Edizio guztietan izan naiz Irisarrin eta inoiz baino frantsestuagoa iruditu zait Ondarearen Eguna: ostiraleko mahai-ingurua frantsesez, larunbateko ekitaldian euskara apaingarri soila eta elkarteen biltzarreko erakus-mahaietan aurrekoetan baino euskara gutxiago. Euskararen errealitatea Iparraldeko gizartean eta gizarte horren balioetan horixe da eta min ematen badu ere, onartu beharko dugu. Bestetik, datu subjektiboa izanik, jende gutxiago ibili da aurtengoan.

Ondarearen Egunak, bestalde, merezi du. Ez du Durangoko Azokarekin parekotasunik, ondarea liburua eta diskoa baino gehiago delako. Zer topa dezakezu bertan?

Ondarearekin zerikusia duen edozein gauza: liburuekin hasi eta halako herriko x-enea etxeko lagunen elkartearen erakusketarekin buka, tartean Organbideskako ekologisten stand-a ikusi ahal izan duzularik.

Eta, noski, Iparraldeko lagunekin patxadaz solasean egiteko aproposa.

Euskara biziberritze bidean

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia onartu zuen Eusko Jaurlaritzak uda hasiera. Planaren egitura eta lantzeko erabili den metodologia bikainak dira; ondorioak egokiak oro har. Hutsuneak? Baten bat, planteatzen diren egitasmoak bideratzeko beharko liratekeen baliabide ekonomikoak ez lantzea da, nire aburuz, larriena.

Kontseilua, elkar hartzeko gune

Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluaren sortzea eta sendotzen joatea 1998ko berri pozgarrienetako bat izan da. Kontseiluan elkar hartu dute, estrainekoz, euskalgintzako kolore guztietako gizarte-erakundeek. Hainbat ezaugarri defini dezakete kontseilua: interlokuziorako erreferente, gogoetarako bilgune, diskurtso berritzailearen eragile, ilusio-piztaile, euskalgintzaren barne-kohesiorako erreminta, etab. Horietako guztietako bakoitzak, dudarik ez, Kontseiluaren betebeharren zati bat definitzen du. Hala eta guztiz ere, Kontseiluaren ezaugarri eta indar nagusia hau da: euskalgintzako agenteok elkar hartzeko gunea izatea. Kontseiluak hor du indargunea. Kontseiluan euskalgintzaren agenteok elkar hartzen badugu, euskalgintzak tinko aitzinatzeko erreminta erabakigarria izango da.

Halaber, *XXI. Mendeko Akordioa: Bai Euskarari* kanpaina abian da. Laster ikusiko ditugu lehen emaitzak eta baita Kontseiluaren eragin soziala neurtzeko modua ere. Alabaina, biltzen ari garen lehen inpresioak oso positiboak dira. Gizarte-agenteekin egiten ari diren harremanetan jaso-

tako iritziak eta hartutako konpromezuak baikor izateko modukoak dira. Antza, Kontseiluaren moduko zerbaiten zain zeuden gizarte-agentek.

Etxenike eta euskal komunitate zientifikoa

Pedro Miguel Etxenikeren Asturiasko Printzea sariaz bi hitz. Euskaltzaletasuna, herri honekiko konpromezu tin-koa eta lehen mailako zientzi jarduera elkartzean lezio ederra eman die ospe txikienaren itzalean euskaltasuna bi- garren mailan jartzen duten askori.

Pedro euskal zientzilari behinena da eta ez bakarra, or- dea. Gure arduradun politikoek ikerketa zientifikoa eta tek- nologikoa bultzatzen azken 15 urteotan eginiko ahalegina umotzen ari da eta, orain, euskal komunitate zientifiko sendoa eratzen ari da. Honek ez digu Nobel saridunik bere- halakoan ekarriko, seguruenik, baina gure herriaren ekono- mi eta gizarte-garapenaren oinarri gotorra izango da. ¶



Xabier Kintana

Donostiako zezen-plaza berriaz

Gaztelako Cid condottiere ezagunak hil ondoren ere gu- duan garaile irteteko fama zuen. Gauza bera esan liteke Donostiako PPren zinegotzia izandako Gregorio Ordoñez jaun ETak hildakoaz ere. Haren ametsetako zezen-plaza, azkenean, *posthume* inauguratu da uda honetan, bultza- tzailea jadanik gure artetik joana izan arren.

Ramon Labaien jaunak, Donostiako alkate izan zen bitartean, ez zuen inolako erraztasunik eman nahi izan, Espainiako festa nazionalaren aitzakiaz, zezenak tortura- tzen diren leku publiko bat eraikitzeko. Jarrera zibilizatu,

aurrerazale eta europarra benetan, anitzek bihotzez txalotu genuena. Tamalez, ondoko alkateek ez dute jokabide berbera izan arlo horretan.

Ez da azkarregi izan behar ikusteko, Ordoñez jaunaren asmoen artean, korridazaletasunaz gainera, bazela beste bat, ezin ezkuta daitezkeen nabarmen horietakoa Donostian Espainia nazioartean ezagutzen duten ekintza nagusiena birsartzea alegia, horrela Gipuzkoako hiriburua ere Espainiaren atal zatietan gisa aurkezteko, bertoko bizilagunek giro espainol hori berena bezala normalki bizi eta senti dezaten.

Badakit, korridazaleek, haien artean abertzale batzuek, diotenez, zezenek Euskal Herrian aspaldiko tradizioa izan dutela, eta horrela gaurko korridak justifikatu nahi dituztela. Izan da, gainera, *Deia*-ko orrialdeetan, zezenak euskaraz mintzo direla moduko xelebrekeriak idatzi dituenik ere. Nik dakidala behintzat zezenak ez dira mintzatzeko, eta toreatzaileek hitz egiten badute ere, aski da korrida-torturen arloko lexikoari gainbegirada bat egitea, berehala kontura gaitezen zer nolako euskal tradizio jatorra duten *muleta*, *rejoneador*, *morlaco*, *traje de luces*, *picador*, *arrastre*, *alternativa*, *banderilla* edo *descabellar* moduko hitzek, eta historia xuritzeko ez du deus balio Iñaki Azkunek Elhuyar hiztegian bere burutik asmatuak kamufaturik itzurtzeak.

Izan ere, Erdi Aroan nekazal eta ganaduzale giroan gure artean zezenketek izan zuten ustezko hasiera gora behera, aski iluna bestalde, kontua da «festa» hori espainolek beretu, landu eta arautu dutela aspaldian, ingelesek italiarren behialako calcio-tik foot-balla, edo Erdi Aroko ohiko pilota-jokotik euskaldunok euskal pilota eratu genuen bezala. Bestalde, ez dut uste antzinako tradizioek gaur, zorionez bestelako etika eta sentiberatasuna duen gizarte honetan, behialako gogorkeriak eta basakeriak justifikatzeko balio dezaketenik.

Hortxe dago, adibidez, Erromako Coliseoa, duela bi mila urte gladiadoreen zirku izandakoa, baina ez dirudi, orduko usadioan oinarriturik gaurko italiarrek giza hilketa haiek berpizteko gogo handirik dutenik. Era berean, baleak harrapatzen zituzten antzinako euskaldunok —gaur ez bezalako egoeran, derradan bidenabar—, baina zerbitzu txa-

rra egingo genioke geure buruari, hartan oinarriturik, orain espezie babestu bilakatu diren animalia gaixo horiek berriz hiltzen hasiko bagina. Eta zezenketei doakienez, gogoratu beharra dago Animalien Eskubideen Nazioarteko Aldarrikapenean, Espainiak ere sinatuan, espreski galarazten eta gaitzesten direla animaliei egindako torturak oro, espainolek, bere erregeagandik hasita, «aspaldiko tradizioa salbatzearren», horri barre egiten badiote ere.

Gauza horrela, bertoko korridazaleak, azken buruan, espainolen emaitzaren voyeur probintziano batzuk besterik ez dira, herriko jaietarako euskal ikuskizun hoberik asmatzeko gai izan ez garelako, bazkalondoko koñaka eta purua harturik, kanpotik helduriko Ortega Cano, Jesulín de Ubrique eta antzeko «castizoez» egindako «faenak» ikustera joaten direnak, horien poltsikoak gure kontura betez.

Bilboko Cocherito eta Jon Idigoras bezalako salbuespen pitxiez landa, ez da inoiz gurean korrida-eskolarik izan, eta guztiok dakigu Euskal Herriko «club taurino»etan zer nolako giro eta kultura espainolak lantzen diren. Horrexegatik, nola ez, korridetarako kartelak, ia salbuespenik gabe, inperioaren hizkuntzan inprimatu izan dira beti, eta oraingoan ere Donostiako zezen-plaza «Illumbe» bataiatu dute. Kasualitatea izango da, gainera, horko koloreak ere hori-gorriak izatea. Eta oroimena lagun, duela zenbait urte Bilbon istiluak izan omen ziren, Azkuneren lagun batzuek, espainol zezenketari «euskal» ukitua eman nahirik edo, banderila gorri-berde-zuriak atera zituztelako, ikusle askoren protesta-ziztukaden artean.

Sintomatikoa da, gainera, beren espainolismoa ezkutatzeko, zezenketak Euskal Herriko kulturaren atala direla aipatzen duten horiek, oro har, behin ere ez agertzea bertoko kultur agerraldi jatorragoetan, ez euskararen aldeko ibilaldietan, ez pilota-partiduetan, ez eta euskalduntze-alfabetatze ikastaroetan ere.

Batzuek, gainera, zezenketek kanpoko turismoa erakarrri eta horrek dirua utz diezagukeela diote, gizarte zibilizatuetan ekonomia etikapean jarri beharrik ez balego bezala. Bide horretatik abiatuz gero, prostituzioa, esklabismoa, pederastia, droga eta gisa honetako eskaintzak ere bultzatu

beharko genituzke, hortik gure turismo-hiriek eta merkatariek etekin handiagoak atera ditzaten. Proposamena hor dago, ea animatzen garen.

Baina zezenketen alde odoltsu, degradante eta moraliki gaitzesgarri horrez gainera, bihur nadin bestera, euskal gizartea espainoltzeko duten bestelako funtziora, inondik ere bistatik galdu beharko ez genukeenara.

Itsuenak ere badakusa, korriden inguruan espainol interes ekonomiko eta politiko nabarmenak mugitzen direla. Eta hor gure agintari «abertzaleek» badute erantzukizun ez txikia. Uda honetan, adibidez, non eta *Deia*-ren orrialdeetan, —berriz ere!— letra beltzez ikusi ahal izan ditugu, ongi nabarmendurik, Bilboko jaietako korridetara joaten ziren herri-ordezkarien izenak: alkate, diputazioburu, lehendakari gaia etab. Francoren garaian bezala, plebeak ikus eta txaloka zitzan, horrekin animalien eskubideen alde sinaturiko nazioarteko hitzarmena hautsi eta bestelako jarrera etikoa dugun herritar askoren sentimenduak mindu arren. Eta hori, jaun-andreok ez da «politikoki zuzena», gutxi batzuen odoltzalekeria onestean gehienon haserrea eta arbuioa lortzen duzue eta.

Horrelako agerrerekin, —Katalunian ez bezala, adibidez— bertoko agintariek, animaliekiko errespetua degradatzeaz gainera, biziki laguntzen dute Espainiako bihotzaren prentsak kiosko eta ileaipaindegi guztietara helarazten dizkigun Jesulín, Rocío Jurado, Rociito, Pantoja eta Albako dukesaren alaba, gureak, oso gureak direla sinestaraztera. Eta aspaldi honetan, nondik eta bertoko kultura berpizteko sortu omen zen Euskal Telebistatik ere, esperpento berbera etxerainotzen digute Yolanda Alzolak eta Txetxu Ugaldek *Lo que faltaba*-ren bidez, eta ez dira horiek, nire uste apalean, bere eraikuntza nazionalaren bidean Euskal Herrian ezagutu eta landu behar ditugun balioak.

Abokatu euskaldunen sokatira latza

Arazoa aspaldidanik zetorren baina aurten lehertu da azkenean. Espainiako Konstituzioak gaztelaniaz gainerako

hizkuntzei aitortzen dien errespetua, ofizialkidetasuna eta gure Estatutuan Euskal Autonomi Erkidegoan euskarari ezagutzen zaion berdintasun-maila gora behera, kokka hortxe egon da: euskarak ez dauka berdintasun-mailarik justizi epaitegien aurrean.

Izan ere, orain arte egin den bezala, epaiketak euskaraz egin ahal izateko, itzultzaileak jartzeak ez du problema inondik ere soluzionatzen. Horrek euskaldunoi dakarzkigun eragozpenak alde batera utzirik ere —erdaldunek zuzenik entzunak izateko eskubidea duten bitartean, besteok, aldiz, ez; itzultzailea alde aurretik eskatu beharra, joan-etorrietan denbora galtzea; eta hauek ez dira gutxi, inola ere—, zutik dirau funtsezko kezka. Nolako garantiak ditu justizia aldetik euskaraz epaitua izan nahi duen hiritar euskaldunak epaile erdaldunagandik, beronek haren hizkuntza ez badaki? Eta jakin, ez daki, ikasi nahi izan ez duelako, horretaz inoiz arduratu ez delako, eta horrek aski garbi erakusten du epaituarenganako nolako estima-kontsiderazioak dituen.

Bestalde, problema itzultzaileen bidez konpon daitekeela esan duten epaile lasai horiei hau galde lekieke: onartuko al lukete berek, gaztelania ofiziala dutelarik, Euskal Herrian epaile euskaldun batek haiei epaiketa euskaraz egin nahi izatea, haien hitzak itzultzaile baten bidez jasorik? Benetan fidatuko lirateke egoera pitxi horretan egini-ko judizioaz? Ez, noski, burutik ez baleude behintzat. Horrexegatik normal iritzi beharko liokete besteok ere berek gustuko ez duten egoera hori pairatu nahi ez izateari.

Hortaz, orain arte euskal herritarrok umiliazioz ikusi behar izan ditugu geure eskubideak zapalduz, epaileek, teorian bederen, konpliarazi behar dituzten lege horiek gure alde bestelakorik esan arren. Are gehiago, erdaldunen antzera, epaiketak itzultzailerik gabe, gure hizkuntzan zuzenik, euskaraz egitea eskatu duten abokatuak behin eta berriro gaztigatu dituzte isunekin. Hau da, legeak aitortzen dion eskubideaz baliatu nahi izan duen herritarri, hori ezin betetzeagatik barkamena eskatu beharrean halako ausartzia lotsagabeagatik zigorra ezarri zaio. Hurrengoan inor beste horrenbeste eskatzera ausart ez dadin, nonbait.

Norbere herrian, nortzuengandik eta gure eskubideak bermatzearren gure zergetatik soldata jasotzen duten per-sonengandik, era honetako bereizkeria jasan beharra neu-rrri guztien gainekoa izan da. Autonomiapeko hogeitau urte luzeotan administratuen hizkuntza, oro har, ikasteko inolako ahaleginik egin ez duten magistratuen jarrera susma-garria bainoagoa da, eta behialako kolonialismo usaina dario. Gainera, epaiketak ez dira arazo bakarrak. Hortxe izan ditugu argibide-kartelak, inprimakiak, eskariak, ziur-tagiriak, abisuak eta deiak ere, ia guztiak frankismo garai-ko hizkuntza ofizialean oraino mantenduak eta berretuak. Beraz, luzaroko erdal tradizio administratibo bakarraren inertzia gutxi izan balitz, ez da harritzeko, euskaldunok, ditugun epaile horien jarreraren aurrean, epaiketak euska-raz egin nahi ez izatea, epaitu behar gaituztenen errepres-a-lien beldur. Nahiz eta hori, sarkasmoz, gure aurka ere era-bili duten, euskaraz epaitua izatea oso jende gutxik eska-tzen duela aldarrikatzeko.

Baina, tamalez, egoera honen errudun bakarrak ez di-ra epaile erdaltzaleak izan, beren jokabide bereizgarriaren aurrean isilik eta deus egin gabe egon diren alderdiak bai-zik. Alde batetik espainolistak, berek hainbat aldiz aldarri-katzen, miresten eta adoratzen duten konstituzioak dioe-na betearazteko inolako zirkinik egin ez dutelako. Eta ba-tez ere abertzaleak, egoera umiliagarri honen aurrean aur-pegia ematen jakin duten abokatu euskaldunen alde joka-tzen jakin ez dutelako, beren ideologiak eskatu bezala, hots, inolako salaketa eta protestarik egin ez dutelako, es-kandalu publikoa eraginez.

Irudiz, epaileenganako errespetu handiegia izan dute, edo haien beldur izan dira, eta ez dituzte hain pertsona sa-kratuak mindu izan nahi. Gabriel Arestik, ordea, aitaren etxea justiziaren kontra ere defenditu behar dela gogora-tzen zigun.

Aurreko hirualderdikoa hautsi denean, PSOEek utziriko justizi saila, hizkuntz arloan urrats beldurti batzuk besterik egin ez zituena, EAK eskuratu bezain laster, gauzak errotik aldatzen hasi dira, Sabin Intxaurrea sailburu euskalduna-ri esker. Honek bilerak egin ditu, magistratu eta epaileekin

mintzatu da, eta hara... mirakuluz bezala, azken hogeitortean ezer egiteko prest egon ez direnak, orain inolako arazorik gabe dena eginetartzeko prest omen daude: euskaraz ikasteko, lehenbailehen epaiketarak itzultzaile gabe egiteko, euskaldunek euskaraz epaituak izateko eskubidea onartzeko... Harrigarria benetan, atzo goizerarte nola edo halako itzultzaileekin dena konpon zitekeela esatetik orain euskaraz jakin beharra onartzera dagoen jauzi mortala. Salatzaile izatetik salatua izatera dagoen alde, beharbada.

Bai, orain dena da justifikazio nahia. Dantzugunetik, euskararen aurka ez omen da inoiz borondate txarrik izan. Kontu guztiok, antza, gaizkiulertuak ez besterik izan dira. Bizkaiko abokatuen kolegioaren burutza lortzeko kanpaina ere, lanbidea euskaldundu beharra kandidatu gehien leloa bilakatu da. Eta abokatu euskaldunek duela urtebete gauza bera proposatu zutenean, neurritz gaineko gehiegikeriak eskatzen zituztela entzun behar izan genien. Hamaika ikusteko jaiok gara, baina tira, beranduko damuoi ere ongi etorri esan beharko diegu.

Eta euskararen auzia konpontzeko bide honetan justiziaz ari bagara, mundu guztiak azken pauso hauengatik bere burua dominekin apaindu eta eskarapelekin dotoretu nahi duenean, ez litzateke bidezkoa izango, nik uste, problema bere gordintasunean aurkeztu eta adorez, beren prestigioa eta poltsikoa arriskatuz, orain arteko bereizkeria gainditzen jardun duten abokatu euskaldunak eta beren elkartea ahantzirik, geure aitopenen, ezagutza eta txaloak emango ez bagenizkie, hauexek izan baitira, izan, eskuak arantza latzen artean urraturik, sugea sasi artetik atera dutenak, lehenago beste aldera begira zeuden ehiztari askok orain piztia tirokatu nahi badigute ere. ♣



Xabier Mendiguren Bereziartu

Kontseilua eta akordioak

Joan den urte honetan gauza garrantzizko asko gertatu dira zalantzarik gabe, suetena barne, zuzenean edo zeharka euskal kulturagintzarekin zerikusia dutenak. Nik neuk, ordurik gehienak egitasmo horren inguruan eman ditudalako Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluaz, abiarazi duen kanpainaz eta akordioez bi hitz esateari hobetsi diot, etorkizunean euskal kulturarentzat bultzagarri gertatuko direla sinetsirik bainago.

Duela hiru urte euskalgintzako elkarte eta erakundeen artean hasitako gogoeta-prozesuak ibilbide luzea egin eta iazko abenduaren 6an, Durangon, Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseilua sortu zuen. Une honetan bertan bilduta dauden 55 elkarteek 5.000 langile eta 100.000 bazkide dituzte, eta urtean 50 mila milioi inguruko dirutza erabiltzen dute. Joera, ikuspegi eta sentsibilitate desberdineko milaka euskaldun eta euskaltzale biltzen dituen erakunde honek joan den maiatzean onartu zuen bere gestio-plana eta Andoaingo Martin Ugalde kultur parkean bere egoitza kokaturik, urriaren 3an «XXI. Mendeko Akordioa: Bai Euskarari» goiburupean, Zamudioko teknologi elkartegian Euskal Herri osorako kanpaina bat aurkeztu eta abiarazi du.

Aipaturiko gestio-planean ageri denez, alde batetik bere baitako talde guztien arteko barne-kohesioa bultzatzea du helburu eta aldi berean gizarte-eragileekin akordioak sinatzeari ekingo dio datorren urtean zehar.

Kontseiluak onartzen du azken bi hamarkadotan aurrerapauso nabariak eman direla euskararen normalizaziorako, Autonomi Erkidegoan bereziki, eta alderdi horretatik, poza eta itxaropena aldarrikatzen ditu, baina bestetik, hutsune nabariak daudela ere ezin du ezkutatu, lan-mun-

duari eta beste zenbait sektoreri dagokienez batik bat. Gainera, Nafarroan oraindik gune batean euskara ez da ofiziala eta onarpen hori duen gunean bertan ere nekez eta zailtasun nabariekkin ari da aurrera egiten.

Iparraldeari dagokionez, berriz, euskara atzeraka doa eta ofizialtasunik ere ez du oraindik. Egoera horren aurrean Kontseiluak euskararen normaltze-prozesuari bultzada bat eman nahi dio aipaturiko kanpainaren bitartez eta horretarako jadanik Euskal Herriko herri eta eskualde gehienetan hainbat batzorde antolatuak ditu, euskalgintzako talde desberdinetako ordezkariekin, bere mezua zabaltzeko, gizarte-eragileekin harremanetan jartzeko eta etorkizun hurbilean euskara euskal herritarron hizkuntza bateratzailer eta integratzailea izan dadin.

Kontseiluaren ustez, euskarak Euskal Herrian bizi garen guztion hizkuntza izateko aldeotasuna du, alderdi eta pentsaera desberdin guztien gainera, eta hori egia bihur dadin lan egin nahi du, administrazio desberdinekin ahal den heinean lankidetzan arituz eta gizarteko borondate eta indarrak bilduz. Helburu horrekin eta kanpainaren testuinguruan, Euskaltzaindiari omenaldi bat eskainiko dio duela 30 urte euskara batze-prozesuari hasiera eman ziolako, sindikatu eta enpresarioen eskutik «Lan-ordu bat Akordioaren alde» ekitaldia eta abenduaren 26an Euskal Herriko bost kirol-zelaitan (San Mames, Anoeta, Mendizorrotza, Sadar eta Agileran) jai-giroko jende-bilketak antolatuko ditu euskara aurrera doala eta oraindik aurrerago joan behar duela aldarrikatzeko, EITBren laguntzarekin eta pantaila erraldioen bitartez aldi bereko ikuskizun sinkronizatuak eskaintzeko. Horrela, euskararen mesedetan gehiengoak adierazten duen aldeotasuna agerian jarri eta gizarte-eragileen atxikimendua eragin eta bideratu nahi du etorkizunerako.

Halaber, akordio politikoak sinatzeko deiak ere egin nahi ditu alderdien artean, euskalgintzak ezinbestekotzat jotzen duen euskararen normaltze-prozesu horrek behar besteko baliabide eta laguntzak izan ditzan.

Hasieran «Euskararen Unibertsoa» izenarekin ezagutu zen mugimenduan eta ondoren Euskararen Gizarte Era-

kundeen Kontseiluan lankidetza eta ilusioa izan dira ezaugarri nagusiak. Gure gizartea tirandura politiko eta ideologiko nabariak jasaten ari den une honetan prozesu itxaropentsu honen baitan esku hartu nahi duen, talde zein pertsonari, euskara sustatu eta normaltze-bidetik aurerrarazteko prest egotea beste baldintzarik ez zaio eskatzen. (Taldeei dagokienez gizarte-ekimenekoak izatea eskatzen zaie, hau da, administrazioaren menepeko ez izatea; hala ere, Euskaltzaindia, Eusko Ikaskuntza, UEMA... eta abar bezalako antolakuntzei, administrazioarekin lotura nabariak dituzten zenbait erakunderi, ere ateaik zabaltzen zaizkie bazkide soegile gisa esku har dezaten).

Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseilua ez da sortu euskaldunen artean soilik bere eragina izateko: gizarte osoari hedatu nahi dizkio bere mezuak eta gaur gaurkoz oraindik euskaldunak ez diren, baina bihar-etzi gure hizkuntza ikasi eta gure hizkuntz komunitatearen partaide izan daitezkeen guztiei helarazi nahi die bere gonbidapena. Euskal komunitatean gero eta ikuspuntu, iritzi, jatorri eta joera desberdinagoko hiztunak izateak aberastu eta zabaldu egingo dute ikusmuga eta etorkizuna seguraturako diote Europako herrien artean. Gainera, euskararen aurreabidea begi errezelotsuz ikusten dutenei esan nahi die, zinez uste duela gure gizartean posible dela hizkuntza eta kultura deberdinetako pertsonen bizikidetza, izan ere askotan pertsona bera gertatzen baita hizkuntz komunitate desberdinetako partaide, hiztun eta eragile aktibo.

Baina hori euskararentzat egia gerta dadin gaztelania edo frantsesaren aurrean parekotasun bat lortzea ezinbestekotzat dauka Kontseiluak. Horixe da Euskal Herriko gizarte anitzari zabaldu nahi dion mezua milurteko berriaren ataritik. Barne-loturak sendotu, akordio sozial eta politikoak sustatu eta aspaldidanik amets egiten dugun Euskal Herri euskaldundu baterako urratsa bizkortzea, horra Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluaren helburua. ♣



Xabier Mendiguren Elizegi

Burni Aroaren amaiera

Euskal Literaturaren *Antologia* bat prestatzen aritu naiz 97-98 urteetan, eta betidaniko kezka-iturri bat azaldu zait berriro hor: periodizazioa, hots, noiz amaitzen den aro bat eta hasten hurrengoa. Testu eta egileetan zail da eten garbiak antzematea, eta literaturaz kanpoko gertakariak hartzen ditugu mugarriztat: ohikoa da 36a markatzea, data hori baino lehenagoko literaturaren antzekoa egin bazen ere 50-60 ingurua arte; 75a ere beti aipatzen dugu (Hegoaldeko inperialismoa), nahiz eta funtsezko aldatketak 80 aldean gauzatu. Orduetik hona, zenbat euri... Gauzak dexente aldatuta zeudela ikusten nuen, baina datu bat falta zitzaigun, garaiak bereizteko balioko ziguna; etsita nengoen 2000.a hartuko genuela mugarriztat, ezinbestean, baina ez: badirudi hemendik aurrera 1998a histori liburuetan azaltzeko arrazoa topatu dugula: tiro-hotsak isildu ziren urtea.

Ehundaka atzera-aurrera izango ditugu hemendik aitzina, baliteke lehengora itzultzea ere, paperak ere milaka belztuko dira gai hau argitu uste edo ilundu guran. Zertara nator ni, hortaz, azantz hori gehitzera? Haatik, kulturako gertakari nagusiak komentatzeko eskatu didate eta honek itzalean uzten ditu beste guztiak, baita hamarkada osoko larrirentzat neukana ere: *Egin*-en itxiera.

«Autonomiaren belaunaldia» deitu zion 20 urteko aldi honi Torrealdaik, erakundetze politikoa eta literaturak euskalgintza orokorretik lorturiko beregaintasuna konbinatuz. Ez dut uste autonomia horren ostean independentzia etorriko zaigunik, baina burnien aro hau betiko gertuko zaigu markatuta denoi. Atzera begira jarrita, bi garai bereiz ditzakegu literaturaren barrutian, modu telegrafiko eta eskematikoan: 80ko hamarkada, etengabeko gorakada

erakutsi zuena, bai titulu kopuruan, bai idazle berrietan, bai inbertsioetan; izenik nabarmentzekotan, Joseba Sarrionandia eta Bernardo Atxaga aipatuko nituzke, irakurleentzako izar eta beste idazle askorentzako gidari, nazioarteko arrakastaz geroztik Atxaga soilik geratu dela dirudien arren. 90eko hamarkada diferentea izan da: kalitatez hobea, baina lehengo giro borbortsurik gabea: egonkortu egin da urteroko produkzioa (1.000 inguru), apaldu dirulaguntzak, moteldu idazle berrien plazaratzea, eta, erreferentziazko egileei dagokienez, beste bi gailentzen direla esango nuke, Koldo Izagirre eta Anjel Lertxundi, baina ez aurrekoen moduan tandem gisa, baizik eta nor bere jarraitzaile eta maitale sutsuekin.

Hizketan aritu naiz lagunekin, su-etenaren kontu hau lehenago egin behar ote zen, egiterik ba ote zegoen eta abar. Ez dugu ondorio garbirik atera, baina nolana ere ez da atzera begiratzeko unea: ezer onik eraikiko badugu, ezin ibil gaitzazke azken urteen interpretazioaz etengabe eztabaidan. Ohar bat, hala ere: zein izan da borroka armatuaren arrazoi historikoa? Herri honi ukatu egiten zaiola bere izatea, zor zaion askatasuna, bizirik irauteko baliabideak. Horren izenean hartu dira armak, askatasunik eza bakerik eza baino gaitz okerragoa delakoan. Une honetan ere ez dauzkagu herri-eskubide horiek, bistan da, baina begiratu ingurura eta ikusiko duzue ezker abertzaleko jendea pozik dagoela, PPko jendeak adinako lasaitua hartuta bezala. Beharbada oraingoan bake bidez zerbait eskuratzeko esperantza dagoelako batetik, baina, horrez gain, garbi dago indarkeri giroa jasangaitzago eta gogaikarriago bihurturik zegoela, abertzaleenarentzat ere, independentzia falta baino. Arrazoi bata zein besteak, borroka armatua gainditutako fasea dela adierazten digute, burrien aroa amaitu den seinale.

Galderen denbora

Sarrionandiaren poema labur bat, *Hnuy illa nyha majah yahoo* liburutik hartua; «Erantzuna» du izenburua eta ha-

laxe dio: «Galderarik ez egiteko/erantzun zigun./Ez erantzuna ez zekielako,/ez erantzuna jakin behar genukeelako,/ez arazoa isilpekoa zelako,/baizik eta galderen denbora/iragana zelako». (Bidenabar esanda, oso liburu gutxi izango dira gure literaturan hori bezain ederrak eta miragarriak, eta aldi berean oso liburu gutxi hori bezain ahaztuak. Zein ote da arrazoa? Tituluaren zaila? Irakurleen nagikeria itsua? Zentsura politikoa?). Poeta onak errealitate ezkutuei antzemateko duen dohain bereziarekin, burnien aroaren ezaugarrietako bat atzeman du hor Sarrionandiak: sobran ziren galderak, hartutako bideari jarraitu beste erremediorik ez zegoen.

Orain, berriz, burnien aroa iraganda, galderen aroa itzuli da. Urriaren 26an ari naiz idazten, Gasteizko Legebiltzarreko hauteskunderen biharamunean. Buruan ditudan galdera batzuentzako erantzunak ezagunak izango ditu hau irakurtzen duenak, baina beste askorenak, Dylanen kantu zaharrak zioen moduan, airean dabilta hega-ka. Diskurtsoak egokitzeko beharra sumatzen da edonon, baina, aldaketa epidermikoak gorabehera, euskaltzaleok gure estrategiak eta lehentasunak pentsatzeko eta definitzeko garaia ere badela esango nuke nik, mugimendu abertzalearekin elkarlanean ahal denean, baina ez haren menpean, orain arte, batzuetan nahita eta besteetan ezinbestean, ibili izan garen bezala.

Buruan ditudan galdera horietako batzuk botako ditut; nik ez dut erantzun ziurrik, eta zuetako inork ere ez beharbada, baina denon artean komeniko da gogoeta egitea. Adibidez, zer leku opa diogu euskarari etorkizunean, edo, bestela esanda, zer leku opa diogu erdarari, gure bi erdarei, Euskal Herriaren osotasuna hartuta eta fantasiak alde batera utzita? Elebitasuna beti ote da diglosiarako bide eta, hortaz, desagerpenerako atari, ala posible da hizkuntza biren elkarbizitza? Kasu honetan, nola banatu bien eremuak: zonaka, arloka, uneka, beti nahasian...? Eleaniztasuna, amets polita izateaz gainera, gauzatu ote dezakegu gure lurrian? Zer da premiazoena: euskaldunen kopurua eta portzentaia handitzea, gure arteko kohe- sioa indartzea, hizkuntzaren kalitatea gehiago zaintzea...?

Prozesu horiek guztiak elkarrekin doazela jakinda ere, egoera zein den ezagututa, batean baino ahalegin handiago egin behar ote da bestean? Teknologia berriek gure ohituretan, eta, horrenbestez, hizkuntz usadioetan duten eragina ikusita, zein dira inbertsiorik funtsezkoenak? Posible ote da horiek elkarlanean bideratzea ala talde bakoitzak bere kasa segitu behar du? Premia berriei erantzuteko lasterketan aurrerantz goaz ala atzean ari gara gelditzen berrikuntzen abiaduraren aldean?

Planto egingo dut; bestela, galdetzen hasi eta ez dut sekula bukatuko. Egoera politiko berriak zabaltzen dituen aukerez gain, badugu beste abantaila bat itaunok plazaratzeko: Kontseilua sortu da 98 honetan, euskararen gizarte erakundeen bilgunea, eta topaleku hori leku interesgarria izan daiteke halako kezka plazaratzeko. Gero gure nahiak gauzatu ahal izatea besterik da, horretarako kontrako indar guztiak hartu beharko baititugu kontuan: estatu etsaiak, Euskal Herri bertako erdaldunzaleak, euskaldun txepelak, gure hizkuntzaren ajeak, inertziaren ahalmenak...

Gogoeta demografikoa

Irakurleak gogoan izango du aurten euskal kulturean sortu den polemika luze eta garrantzenaren iturria: Matias Mujikaren idazki hura. Lasai, ez dut libelo dontsua jorrazteko asmorik, esan beharreko guztiak esanda daudela uste dut eta. Hango gogoeta batek hizpidea ematen dit ordea, nik beste bat egiteko. Mujikak zioen, goapoen batez bestekoa berdintsua zela beti, hamarretik bat eman dezagun; era berean, buruargien portzentaia ez zela asko aldatuko toki batetik bestera, eta, horrenbestez, euskal hiztunak hain gutxi izanda, ezin pentsa zitekeela honenbeste poeta on, pentsalari mamitsu eta kontatzaile iaio geneukanik. Ez da pentsamendu kamutsa, baina bai segur aski herrena, kalitate kontzeptu erlatiboa baita, ez absolutua, eta, bestalde, buruargitasuna nonahi eta noiznahi berdintsua izanik ere, une jakin batzuetan nabarmenago ager daiteke literatura produktuetan: Grezia klasikoan, esaterako, hiritar alfa-

betatuak ez ziren gaurko euskaldunak baino gehiago izango, eta horra haien emaitzak. Dena dela, ez zen hori aipatu nahi nuen gaia, gure publikoarena baizik. Ea buruargitasun pixka batekin azaltzen dudan.

Aurtengo liburugintzaren errepaso labur bat egin nahi nuen; gure egile klasikoak inoiz baino oparoago ibili dira: Atxagak, Izagirrek, Lertxundik eta Azurmendik bina liburu, ez baita gutxi! Horiez gain, liburu interesgarri franko, aipatu gabe utz nitzakeenekiko errespetuz bakar bat ere aipatu gabe geratuko direnak. Gainera, lehenengoz plazaratu diren idazle mordoxka bat, zer kontatua eta idazkera trebea erakutsi dizkigutenak: Luku, Osoro, Barandiaran, Izaga, Estankona, Padron... Gainbegiratu arin horren ondorio modura esan nahi nuen, kalitatez zein kantitatez urte ona izan dela 98ko hau euskal literatura-arentzat (bai behintzat berez dagokigun goapo portzentaia-aren arabera), aurrekoak izan diren bezala, baina, aurrekoetan legez, publikoan ikusten dudala hutsunea, irakurleen bilakaerak eta hazkundeak ez diotela guk nahi bezala erantzun sorkuntzaren hobekuntzari. Eta honen haritik egin nahi dut gogoeta demografikoa, euskal irakurleei eta bereziki literaturazaleei buruz.

Zenbat irakurle ditugu oro har? Ez da erraza erantzuten, baina, 700.000 euskaldun inguru baldin bagara, eman dezagun euskara batuz gutxi gorabeherako erraztasunarekin irakurtzen dakitenak 100.000 inguru direla, batak bat jende gaztea. Horixe litzateke *Egunkaria*-ren irakurle posibleen kopurua gaur, irakurle errealak askoz gutxiago diren arren. Dena den, literaturaz aritu nahi dut hemen eta, horrenbestez, askoz estuago jokatuko dut. Literaturako irakurlea, *stricto sensu*, honi deituko diot: inork behartu gabe, literaturazko liburuak (kontagintza edo poesia edo saiakera...) hartu eta irakurtzea gustatzen zaiona, zaletasun hutsez, eta gainera horretan plazer hartzen dakiena, ideia berri batek kilikatuta, hitz joko batek ernatuta, argumentu bizi batek katigatuta... Bizio edo dohain hori dutenak oso gutxi direla onartu beharra dugu, hemen eta edonon, goapoen portzentaia bezala, edo areago. Har dezagun, adibidetzat, Alemania: herri ikasia, kultura

garatua duena, hizkuntza landua, tradizio aberatsa, diru arazo berezirik ez... Ehun bat milioi hitzun izango dira, denak ongi alfabetatuak eta etxean egoteko guk baino ohitura gehiago dutenak. Ehun milioi horietatik, zenbat ote dira deskribatu dugun bezalako literaturazaleak: milioi bat, asko jota? Dexentez gutxiago, seguru asko. Eta euskal literaturak? Beste faktore bat erantsi behar da: hizkuntzarekin plazer hartzeko, euskara zinez ezagutu eta menderatu behar dela, hain zuzen ere euskaldun gazte alfabetatu askok egiten ez dutena, ezin dutena. Hortaz, zenbat irakurle? Ez dut zenbakirik emango, baina oso gutxi garela esango nuke.

Nik ere tranpa egin dut goiko gogoeta txatxu horretan: izan ere, literaturaren zaletasuna ere erlatiboa da, baxter axola ez izatetik asko gustatzera mailaketa guztiz luze eta graduala baitago, eta, gainera, euskaltzaletasuna pizgarri positiboa da irakurle arruntak literaturazale bihurtzeko. Hala ere, gure publikoaren zenbatekoak eta nolakoak kezkatu egiten naute, arrazoi diferenteengatik. Kopuru urriak, edonor konturatuko denez, guztiz murrizten du askatasun ekonomikorako aukera, idazlea amateurismora behartuz, edo esportazioarekin itsutzera, edo sari eta beken etengabeko bezero izatera. Kezkagarriago izan liteke irakurleen tipologia, kalitatea: sektorean dabilenak badauki, saldu, irakaskuntzan baliagarri dena saltzen dela, euskaltegi nahiz institutuetan gomendatzen dutena, salbuespenak salbuespen. Euskara «erraza» ez ezik, obraren kontzepzioa ere erraza eskatzen du horrek, euskara gehiegi ez dakitenez eta ohiko literaturazale ez direnek arazo handirik izan ez dezaten. Horren ondorioa da hainbat liburu on ahazturaren zakuan geratzea, edo edozein literatura normaletan kasik *best seller*-ak lirakekeenak (Izagirrerren *Germinal*, esaterako) oso «zailak» direla entzun beharra. Eta orduan euskal idazle gaixoa gogoetan jartzen da, ea merezi duen ehundaka gutxik ulertuko duten lana egitea, ez ote litzatekeen hobe bere sormenaren esijentziak apaltzea irakurleen onetan, baina hori ez ote litzatekeen bere gaitasun artistikoa zikiratzea, eta aldi berean euskal kulturaren pobretzea...

Galdera asko berriz ere, demografiaren eremua gaitzen dutenak; eta, nik ere emandako espazioa dagoeneko gaitu dudanez, agur eta banao. ♪



Laura Mintegi

Garai gazi-goxoak

Aurreko ikasturtean zer edo zer nabarmendu behar izango bagenu, kontraesana da: baikortasunerako zenbait elementu berri agertu izan da euskal kulturgintzan batetik, baina, bestetik, betiko eragozpenek iraun egiten dutela —eta bazuetan areagotu direla— ukaezinezko errealitate konstatagarria da.

Baikortasunerako zantzuak

Iazko ikasturtean gutxitan ikusi izan dugun adostasuna jazo da euskalgintzari dagokiola: Gizarte Erakundeen Kontseilua martxan jarri zen abenduan (egun «Bai Euskarari» kanpaina bultzatzen ari dena); Euskararen Aholku Batzordeak Hizkuntza Biziberritzeko Plangintza onartu zuen ekainean; eta, azkenik, «Etorkizuna Euskaraz» izeneko kanpaina aldarrikatu zuten *Egunkaria*-k, Topaguneak, AEK-k eta Ikastolen Elkartek. Euskalgintza bat datorrela ematen du, zenbait urte lehenago —urte gutxi lehenago— ezinezkotzat joko zen harrigarritzko adostasun maila lortuz.

Unibertsoaren hasierako bultzatzaileek, Itun Nazionalaz mintzatzen zirenean, maila abstraktuegiar aritzen zirela entzun behar izan bazuten ere, iazko ikasturtean euskalgintzan ikusi izan dugun jarrera ikusita, gizarte erakundeek bide horri ekin diotela ematen du, konplexurik

gabe ekin ere. Euskalgintza batu ostean, aldiz, bigarren ekimena erdalgintzarekin bat etortzea izango da, baina horretaz hurrengo urteetako *Jakin*-en balantzean mintzatu-tuko gara, egiteke dagoen zeregina baita.

Oraingoz esan dezakeguna da helburuak sendotuz eta batuz doazela, entusiasmo modukoa hedatu dela euskalgintzan dihardutenen artean, eta gora egin duela, oro har, euskararen presentziak gizartean. Adostasun aroa bizi dugu.

Bestetik, ordea, errealitateak behin eta behin esaten digu egindakoa egin beharrekoa baino askoz ere gutxiago dela, eragozpenek bere horretan dirautela, eta euskal hiztunen kopuruak hirietan gora egiten badu ere, herrietan behera egiten duela. Handitu nahi duen orori mila oztopo jartzen zaio, haz ez dadin; euskararen alde egindako ahalegin guztiak, txokoratzeko joera agertzen du beti gizarte elebidunak. Pauso bat aurrera eman orduko, beste bat atzera eman dutelako sentsazioa dute euskaltzaleek sarri askotan.

Ezkortasunerako argudioak

Baikorra izateko zantzuak ikusi ditudan bezalaxe, ezkorra izateko arrazoi franko ere badago egon. Arazoak, gehienetan, ez dira barnekoak izaten, kanpotik ezarritako inposaketaren ondorioak baizik, inposaketa hauen helburu nagusia euskalgintzaren garapena geldotzea edo deuseztatzea baita. Tamalez, ez da batere zaila adibideak aurkitzea: Epaitegietan euskaraz aritzeko ezintasuna eta aritu nahiak ekarri duen errepresioa; Europako Hizkuntz Ituna, Frantziak eta Espainiak hurrenez hurren onetsi eta berretsi gabe dutena; EHUren euskara hutsezko irakaskuntzaren bazterketa, B eredu maltzuraren mesedetan; Euskalerria irriari lizentzia ukatzea; eta Egin irriaren itxiera. Eta zerranda honi gehi geniezaioke AEKri egindako eraso eten-gabea, bere finantziaketaren, eduki akademikoen edo beste edozein alderdiren aitzakiaz, susmopean jartzeko xedeaz. Diodan honen guztiaren adierazgarri argia, J.M. Torreal-

daik iazko ikasturtean argitara eman zuen *Euskeraren Liburu Beltza* da, non urte luzeetan zehar hizkuntzak pairatu izan duen eraso etengabea batzen den. Liburu horrek grafikoki indartzen du kanpo-erasoaren argudioa, forum sasi-intelektualetan gezurtzat jo izan den argudioa, bestalde.

Eraso guztiak, ordea, ez dira horren nabariak. Batzuetan zuzenean jo ordez, egoera itolarriak sortarazten dituzte, eta euskalgintzaren eremuak agortzea lortzen dute, kausa-efektu binomioa agerikoa izan gabe. Alde horretatik, haur eta gazte aldizkarigintzaren kasua sintomatikoa izan da. Iazko ikasturtean *Xirrista* eta *Kometa* aldizkariak desagertu ziren, *Ipurbeltz* aldizkaria egoera larrian dago, eta *Kili-Kili*-k ere berpizte-kanpainari ekin behar izango dio ikasturte honetan, bide beretik jarraitu nahi ez badu. Helduen irakurzaletasunerako, euskal prentsarako eta kaleko girotzerako kolpe handia da haurrek eta gazteek duten euskarazko prentsa apurra itolarrian egotea.

Eztabaida antzua, eztabaida eza

Eta tartean, eztabaida luze bezain mingotsak (antzua, gehienetan) hedatu dira gure artean, euskaldunon artean, kanpotik datorkigun erasoari begira etekin handirik eskaintzen ez dutenak: Sarasolaren *Euskara Batuaren Ajeak*, eta Matias Mujikaren libeloak bazterrak nahastu dituzte, baina ez dute eztabaida sakonik eragin gure zereginaz. Deskalifikazio, edota aldeko zein kontrako adierazpen hutsek ez diote ekarpenik egiten sakoneko gaiari, hots, zenolako harremana duen euskal kulturak inguruko kulturekin; zein jarrera agertu behar duen euskarazko kulturak (zabala/estua, integratzailea/baztertzalea, garbizalea/mestizaia, globalizazioa/atomizazioaren aldekoa, integratua/apokaliptikoa...) nazioarteko kulturen parte bat izanik ere, bere nortasun eta identitate-zantzuak mantendu ahal izateko. Gai honen inguruan ezer gutxi esan da, eta horixe da, hain zuzen ere, funtsean dagoen kakoa.

Izandako eztabaida antzu horretatik atera den probetxuzko bakarra, eta nire ustez benetan interesgarria, Ipa-

rraldeko idazle guztiek (Anton Luku eta Itxaro Bordaren lumatik) Sarasolari emandako erantzuna izan da, bi artikulutan argitara eman zirenak prentsa idatzian. Bi artikulutan, Ipar Euskal Herrian idatzi den literaturaren gainean, eta literatura horrek duen euskarri linguistikoaren gainean, aspaldi egin gabeko hausnarketa ikusi genuen, txalotzekoa nire irudiko. Horretaz aparte, ezer gutxi.

Administratzeko administragai eskasia

Hemen eta han kexa solteak ikusten ditugu euskalgintzak dituen gabeziez, itzulpengintzaren arloan dauden hutsunez, irakaskuntzak dituen ahuleziez, eta kasu gehienetan egiazko kexak dira, oro har. Kontua da horri guztiari zenolako irtenbidea eman behar zaion, eta une horretan hasten dira arazoak. Errazenera joz, antolaketari egozten zaio errua, administrazioak (publikoak zein paraleloak, igoal da) bailuen guztiaren erantzukizuna. Euskal kulturgileek gutxitan bereganatzen dute/dugu (autokritika beharrezkoa da) dagokigun erantzukizuna. Kulturgileek ez dute hartu iniziatiba arazoan konponketan, ez dute proposamen zehatzik egin: teknikarien eskuetan utzi dugu planifikazioa. Euskalgintza teknokraten eskuetan dago, eta hauxe diodanean ez dakit poztasunez edo tristeziatz esaten dudana, nik ere ez dakidalako, zehatz-mehatz, sortzaileen eta administratzaileen arteko harreman orekatua nola gauzatu behar den.

Administrazio publikoa, eta administrazio paraleloak behar dira, ez dut ukatuko. Baina administragaiak falta dira. Zer banatu, zer hedatu, zer eskaini hartzaileen aldetik harmena (errezeptibitatea) areagotu duena. Sortzaileen ilusio falta sumatzen dut, proposamen kreatzaile eskasia. Makro-arazoa teknokraten esku jarri dugu, eta sortzaileek mikro-produkzioan dihardute, gero eta eremu murriztagoa hartuz, bere burua gero eta urrunago kokatuz gizarte-proiektuaren plangintzetatik, norik bere zereginean murgilduta, eskaerari erantzun gabe; edo bestera esanda, eskaera berria sortarazi gabe. Liburu on batek, proposamen ar-

tistitiko ausart batek, musika berritzaile batek gehiago egin dezake euskalgintzaren alde, zazpi organigramak eta hogeit hamar spot publizitariok baino. Jakina, organigramak eta spotak ere behar ditugu, nola ez. Baina ez hori bakarrik.

Euskal artegintzak (artean sartuz kulturaren arlo guztiak) trinkotze garaia bizi du gaur egun; dagoena bermatu, sendotu, finkatu, findu, eta bitartean abenturari tarte txikia utzi. Hazi aurretik gizentzen ari den umearen antza hartzen diot artegintzari. Indartze-garaian ari da, jakituria metatzen ari da, egia berriak sortu gabe. Pentsatu nahi nuke apostu berriak egin aurretiko lasaitasun garaia bizi dugula, berritze-garaia heltzeaz dagoela eta epe laburrean helduko dela gainera, literaturgintzaren alorrean batez ere. Aidean sumatzen dut, intuitiboki (adi intuizio femeninoari!) egileren baten aldetik proposamen berritzailearen bat azalduko dela halako batean. Datu objektiborik ez dago, jakina, baina intuizioak ez du datu objektiboen beharrik.

Komunitateen arteko amildegia kulturala

Bien bitartean, erdal eta euskalgintzaren artean dagoen amildegia ez da leuntzen, kontsentsu giroa hedatzen ari den garaian bizi bagara ere. Guggenheim bezalako proiektuek ere ez dute gauza handirik laguntzen amildegia deusestatzen. Hizkuntza oinarria duten bi/hiru komunitate kultural ezberdin bizi dira Euskal Herrian, baina muga ez da hizkuntza bat edo bestearen erabilpenarekin amaitzen, haruntzago baitoa desenkontrua: adierazbide kultural askotan sumatzen da bi/hiru munduen arteko ezberdintasuna. Zubiak eraikitzea zaila da, ordea. Oztopo errealez gain, hau da, auzokoaren hizkuntza ulertze-ez ulertzeaz gain (alde horretatik euskaldunok abantaila dugu, gutariko denok, gutxienez, elebidunak baikara, eta elehirudunak ere bai, kasu askotan), auzokoak egiten duenak jakinmina sortarazi behar du. Ez da nahikoa zer dioen ulertzea; baita ere —eta batez ere— kontua da zer dioen jakin nahi izatea, eta ez du ematen (guri dagokigula) erdaldunek interes

handirik dutenik euskaldunok arte munduan dihardugunaz. Euskaldunon adierazpen guztien gainean aurreiritzia ezarri ohi da. Bost axola ulertu ezin dena. Jarrera hori ikusita, sentimendu simetrikoa sortarazten da atoan: nitaz ezer ez badute jakin nahi, bost axola niri ere auzokoek egiten dutena.

Horrela gertatzen da, esaterako, metropoliek hobeto ezagutzen dutela Ingalaterran edo Iparramerikan egiten den literatura, musika, edo artea, periferian egiten dena baino. Baina alderantziz ere gauza bera esan genezake: Periferiak hobeto ezagutzen du atzerrikoa, bere metropolian proposatzen dena baino. Alde bietatik ikusita, ez al du funtzionatzen errefusa ideologikoak?

Amaitzeko

Iazko ikasturtean, eta batez ere haren amaieran, arlo politikoan garai berrietarako oinarriak ezarri ziren, eta gizartearen lehen zantzuak ikusi izan dira egoera politikoari dagokion. Kulturgintzan, aitzitik, dena egiteko dago. Arlo pribatura eraman beharra dago orain kalean hausnartzen den kontsentsu giroa; onarpen-filosofia arlo intimoenera bideratu beharra dago, adierazpen eta sentimenduen arlora alegia, horixe baita artegintzaren langaia.

Adintxo bat daukagunok, eta batez ere emakumeok, ondo dakigu, jakin, kalean iraultzailerik iraultzaileena den horrek, etxean sasi-esklabizaturik mantentzeko beharrezko bizikidea, oinarri iraultzaileak behin ere kolokan jarri gabe. Gurera ekarriz, euskal kulturak zein etekin aterako du iraultza politikotik? Zertan askatuko da kulturgintza aro berrian? Zer aldatuko da?

Baliteke galdera gaizki formulatua egotea. Seguruen galdera zuzena ez da zertan aldatuko den, baizik eta zertan aldatuko dugun. Ez duzue uste? ♣



Manex Pagola

Iruriko Jean Louis Etchecopar joan zaigula!

Gizon mehar, aurpegi xorrotx eta hanka luzeko hori lehen aldiz, nere bulegoan sartzen ikusi nueneko, Iratiko pagogo baten itxura bizia etorri zitzaidan bururat. Ele guti, baina gogo sutan eta ezinago alan duten gure inguru intelektualeko jende hain bakanen moldea eman zerautan lehen sisten. Halere, laster jakin nuen Xiberuan Iruriko alkateorde kargua betetzen zuela. Baina zer erran nahi ote daut gizon honek horrekin?

Denborak jin, denborak joan, ikasi nuen Jean Louis Etchecopar jaunaren tirria, jaidura, odola eta gogo besteenganako lehiak osoki hartua zutela beste batzuek bezala egoismo zenbait goiti beheiti. Zenbat aldiz ez deraut salatu zenbat min zuen bere Xiberuko herrialdeari begirada bat emaiten, eta denbora berean, zer itxaropenak hazten zituen halere lur eta jendalde horrek eman ziezagukeen bat-bateko emaitzekin!

Jean Louis, nonbait, mendiko gizonen arrazatik, beren espantuen berri ere hain erraz agertuko ez duten horietarik zen. Baina ohartzean bere solaskidea oihan galdu berekoa zela beharbada, hara non egin dituen eta ez dituen ororen xeheki burrustan emaiten ariko zerautan. Nolaz ez? Nik ere beste xiberotar ezagunen artean, Jean Louis-en izena aipatuz geroz, ikasi bainuen sobera lanik gabe, Jean Louis hori ez zela azkenean edo nihundik ere nornahi. Zeren eta hasteko ez baitzuen *amen* bat berehala erraiten ez bere (etxean?), auzoan, ez Xiberuko Zindikatean herriko ordezkari zenean, ez deputatu, senatore ez nihori. Hasteko, ez hain segur lehenik elizako buruei ere, nahiz bazituen hauetan bere gogokoak «gizon hunak». Zeren, berak zioenez, ez baita zuzen jende ikasiek ez ikasi horiek oro beren goratasunaz har eta itzal ditzaten, gizon eta

emazte guztien arteko lehen berdintasunak jakintza lainoa-rena izan beharko lukeelakoan! Eta zer ikusten du Jean Louis Etchecopar jaunak? Jendeak oro, holakoak eta hala-koak direla, aberats edo pobreak, gaiztoak edo onak, buru bero edo tontoak, beldurti edo harro, denetarik nahasteka-tuz berdin, baina oroz gainetik geroz eta gehiago beren etxeko, auzoko, herriko edo herrialdeko erroetarik mozten ari, basa jakintza baten dirdira arin bat baizik ez dutela berdin berekin biltzar tokietan lehen aulkiak harturik ere. Eta horra non gure Iruriko herri gizonak jakitatearen be-har gorria xutik ikusten duen bere Xiberu maitean hainba-tek eta hainbatek gogoa hegaldatua dutelarik sobera aise Pariserat edo Bilborat edo Baionarat, berdin mikorik ere ezagutzen ez duten ipar eta hego ameriketarat... beren egiazko herriari eta herritarrei bizkarrez jarriak!

Bazekien bai Jean Louis-ek dohain ederren jabe zela bere biziak eman zizkion ofizio eta harreman guztiengatik baizik ez bazen ere, berak maiz errepikatzen zuen bezala. Hortakotz da doblezka lotzen Xiberuko herri bakoitzari to-kiko historiaren leihoen irekitzen polikino, deus hautsi ga-be, iraganari lotua den herri bakoitzaren hutsune oro argi-tuz bere gisarat, baina zorrotzasun kartsuarenarekin. Baina «historiaren zentzu guztiarekin, eta barnetik!», jakinik his-torian gure iragana hari askotan bildua dela eta ez baka-rrik Euskal Herrikoetan... Ez da harritzeko Xiberuan orok gutun ekarle-funtzionario gisa aspalditik ezagutzen zute-nak bere entseguak eginik ere historia handiaren bidetan. Harritzekoa horren idazkiak harrapaka eraman dituztela xiberutar askok eta haragokoek ere! Eta nire lantokian du-dan bulegotik horren frogak maiz ditut ikusi eta zorionez gozatu ere.

Baina Euskal Herriko Basko handien jakintsuen kasta azkarrak ez dituzke gauzak berdin ikusi. Jean Louis gizon suhar eta ezaguna zela bai hain segur Xiberuan (eta nor ez da hala-holako eremu ttipi batean?) baina ez zitekeela egiazko ikerlarietarik izan, Unibertsitateak izendatzen di-tuen horietarik! Hori da gaitza onartzeko!

Horiek hola, iragan uda minean, harridura guztien er-dian, eta bere etxekoen nola adiskide hurbilen itxaropen-

-deiadar guztien gainetik, istant bateko gaitzak eraman du gure Xiberuko mendi, lili, erreka, zuhaitz, ihizi, haran, etxeko jaun eta etxetiarren bai eta ofiziale eta langileen izenak oro buruan —barnetik eta xeheki— josten dakiten bakarretarik genuen Jean Louis Etchecopar, Bordeleko klinika ospetsu batean.

Beharrik, Iruriko eliza ttipia bere ingurukoez tanpez bete dela ehorzketa xume bezain hunkigarrien karietarat eta parrokiako apezak ospakizun xume bezain ederra egin diola nik segurik preziatu dudan solas hanpatu gabeko prediku goxo batekin.

Euskal Herri handiko ikasi edo direlako intelektual gehienak itsas bazterreko mainuetan zitezkeen Xiberuko pago ederrenetarik hor bet-betan herio latzak lurreratu zuelarik, alta inguruko oihana beraz, egiazko nigarrez hipaka entzuten ahal baitzen. Baina ehorzketa horren astiria zoragarria izan zen Xiberuan bezala Akitania osoan ere seguraski. Lurrak bederen gure Jean Louis berriz ongi bere-tua zuelako seinalea.

Baionako Euskal Museoa berriz irekiko...

Baionako Euskal Museoa berriz lehengo bere tokian, erran nahi baita *Dagouretenia*-n, ireki beharrak ditu bere ateak zinezko museo bezala, 2001. urtean. Baionako Herriko Etxe edo udalaren errana! Bigarrena edo hirugarrena eta ez beharbada aurtengoan azkena! Zergatik hainbeste aldiz errepikatu hain urrun baizik obratuko ez den berria?

Anartean, lehen hor ziren puska eta ondare zainketa lan eta gaineratikoek jarraitzen dute Château Neuf edo Gaztelu Berri izen galantez deitu kaserna zaharberrituko bazter batean. Ospe handitan estrenatu ere da hemen iragan uda aitzinttoan euskal pilotaz ikusgarri bat. Eta hau, aski bitxi dena, jende askok uste ukan du horretan erakusketa bat egiteaz geroz museoa, lehenengoaren ordaina, berriz bidean jarria zela, hots berriz irekia. Hor da ageri jende batek zein errazki sinesten dituen gauzak edo berdin jende horri berari edozer sinestaraztea ez dela azkenean hain ne-

ke. Norbaiten interesa beraz hori ere. Zeren hemen baita mina: nolaz den jende hori euskal kulturaren harrobi bizia hain urte nasaiez agertu zaigun etxeaz edo ahantzia edo axolagabetua, halabeharrak joa bezala! eta zerbait pentsatzeko gogoia etortzen bazaio, zernahiren irensterat emana.

Hamar urte hurbil beraz jadanik Baionako Euskal Museo egiazkoa hetsia dela, oi! ez —egia da— harramantza zerbait gabe, kazeta edo egunkari horien orriak nolazpait betetzeko bezala. Baina orain galdatzen bagenu berriketari zorrotzenek denboran erranak zertan diren orain? Eta non agertu ote diren kanpora hainbertze solaski edo idazkien artean Baionako Euskal Museoa bezalako herri-museo batek zuen edo duen garrantzia? Baina nork nahi du egiteko horietan beti hegalak erraz aritu? Goazen hortakotz errazkiago beste kultura guneri! Ez ote dira berdin hain beharrak hauek ere: kultura etxe, herri kultura ekitaldi eta beste... hainbeste jauntxo zahar eta gazte gutartean ausagailustatzen dituztenak aipamen eta diru zenbaiten artean ere berdin! Alaintso! Ez baitira hauek ere beti auzoari uzteko gauzak! Eta zer? Kultura bat ez ote da azkenean Euskal Herrian ere beste helburu batzuetarat joaiteko aitzakia polit bat izaiten ahal, ahatik hau nehoi salatu gabe!

Arte horretan, Baionako Euskal Herri-Museoa bere hetsaldian oraino aski luzaz dagoke, berdin hor aipatzen diren gauzak aski bizirik baitaude kanpoan, gure herri eta hirixketan: dela kantu, dantza, pilota, zur, burdin edo harrizko lan, ohitura eta berdin hizkuntza bera ere. Zergatik axola beraz Baionako Euskal Museo batez? Eta horretan askok ez jakin azkenekotz zeri edo nori fida: Museo hori egin zutenak hain axolatuak ote ziren beren denboran euskal kulturaz? Batzuek baitiote berdin ezetz, deblauki: baizik eta tokiko komertzio sare bat indartzeko eraikia zela, udatiarren Baionarat biltzeko ostatu edo hoteletan gaindi. Baina aitzakia horretaz balia ez ote zen ezagutu dugun Baionako Euskal Museoa merkatu horretaz besterik? Nork erran dio gaurko gure kulturaren eta hizkuntzaren otar eta landetan dabiltzanen artean ez diotela zerbait zor Baionako Euskal Museoak —irekia zen denboretan— gisa bat edo beste agertu altxorrari eta herri-deiari? Baina egia,

denbora haietan Euskal Museoan idatzia baitzen eta araberran obratzen erran zaharra, zinezko ongi etorriarena! «Hemen sartzen dena bere etxean da».

Hortik orain beste gogoeta jauzi bat haratago baina museogintza berri batetik ez hain bazter...

Munduko merkatu berriek beren teknologiak saltzen eta sartzen ari dituztelarik norat nahi, berdin ere holakoan hain behar gorririk ez den tokietan beretan, biharko gure museoak berak nola teknologia tratuen azpirat batzuek bildu nahiko dituzten bada beldur handia izaiteko. Ez bailukete museoek ikusliarrek kulturako edo ondareko gauzez gorago ikusi behar gauza horiek ziren eta diren bezala orain erabiltzen diren tekniken lehentasuna. Ala ez den denei emana izanen museoek ikustea eta horietaz gozatea? Hori ez baita iraganean egoitea baina gauzen bere heinean edo neurrian uztea huntan eta hartan, orain kasik denetan teknika jakitsu berezi batzuen menpean ez izaiteko. Ala nahi den ondarea ez hurbildik ikustea, haztatzea eta senditzea? Baratzeko liliak sare batzuen gibelean, nork nahi du holakorik sarea nahi den bezain ederra edo harri-garria izanik ere?

Orain, batere etortzekotan, datorrela bere bidean Baionako Euskal Museoa gure lehengo mintzoz oihuka eta irrintzika. Hori galduz geroz gure herrian ez da deus onik guretzat. Eta hori beste batzuek ere badakite!

Baionan irrati bat gehiago euskaraz?

1981ean frantses gobernuak irrati libreen aroa jarri zuenean ez bide zen Baionan ez inguruetan frantses anitzik euskarazko irrati bat egin behar zela gogoan eta xedean zuenik. Alta izanen zukeen orduan berean aski arrakastarik, zeren frantses horiek baitakite gauzen ongi egiten, ez baldin bada ere beti —guk bezala— bihotz onez. Baina euskarazko irratiak ez genuen etortzen ikusi denbora haietan ez Paris erditik ez horren bazterretik. Sortu zen euskarazko irrati bakarra izan zen 1981eko Eguberrietan Gure Irratia deitua. Bere xedetan argi jarri zuen hastetik ahal

zen neurri guztian denena izan nahi zuela eta hasteko euskarazko irrati eta telebista Zerbitzu Publiko bat sortuz geroz, horrarat eginen zituela bere indar guztiak.

Gure Irratia sortu zutenen xedea ez bide zen hain burugabea zeren handik laster beste bi irrati abiatu baitziren 1982an, bata Baxenabarren, Irulegi Irratia, eta bestea Xiberuan, Xiberoko Botza, hauek biak ere gehienbat euskarazkoak. Eta geroztik hor dira hiruak eta hori baino gehiago, jende askok gogoak dituela jakina da ere, bestenez ere hamasei urteren zamak lehertuko zituen eta azkenean isilaraziko. Iraupen horren arrakastak dituen orain frantses sozialisten arteko euskaltzale batzuk beste euskarazko irrati baten egiteari bultzatzen ala beste xederik baduten zinez, hori hain segur geroak erakutsiko diguna da. Baina aski hurbil omen da gauza. Eta horrela hobe guretzat orotaz aski argituak izaiteko.

Gauza jakina da sozialista frantsesen artean orain arteko euskarazko hiru irrati horiek ez direla aski frantsesak, beraz ez aski onak. Izaitekotz ere huts handia egiten dutela Euskal Herriari, hunen izaiteari eta geroari (erran nahi da gure ipar eta hegoaldean) garrantzi gehiegi emaiten dutela, eta ez aski Frantzia handiari, alta hau hain handia delarik! Eta ona ere, zendako ez? Beraz euskarazko irrati publiko (politiko?) bat eraiki beharra digute frantses sozialistek. Funtsean jendea laster ohartuko bide da sozialisten euskarazko irratia alde batetik orain arteko hiru euskarazko irratiekin konkurrentzia hurbila apailatzen ari duela eta publikotasunak ekarriko dion diru joriari esker horien lehertzea ekar dezakeela goiz edo berant, mirakuluz kanpo...

Alta hain *ongi eta zuzentasunean* gobernatu nahi duten frantses sozialistentzat bezala ez zen batere tratu txarra izanen diru publikoarentzat ere orain arteko euskarazko irrati horiek sare publiko batean biltzeko solasak jadanik abiatu balituzte! Baina sozialisten boterea ere besteena iduria beraz, berriz ere. Manamendu hutsarena. Ez hasteko publikotasunaren arrazoinarena, zeren jada errana dugun bezala Gure Irratiak segurik bere lehen egunetarik publikoa izaitea eskatu baitzuen eta maila hori ez erdietsirik ere, euskarazko irrati publiko baten lana egin alde bateko

edo besteko jende oro aski poliki antenan mintzaraziz egunero.

Xedeak ez dira ekintzak. Orain ikusi beharko noraino joanen den hemengo frantses sozialisten euskarazko irratia- ren amets urdin hori. Eta horren obratzeko biderik nihun agertzen bada zendako ez liteke bederen amets horren kolore egiazkoez iritzi publikoaren argitzen hasi behar oraindik beretik? Haiek eta guk geure kartak diren bezala erakustea ez da gerlarat joaitea. Eta hobe nehork ez badu sozialistetan ere holako xede beltzik! Hau ez baita osoki gureak xuritzeko. ¶



Allande Sokarros

Zuberoa: berezitasun eta bereizkuntza

Zuberotar bat Zuberoako kontu batzuez mintzo. Asko ez dira harrituko eta nolabait ohizkotzat joko dute ere aukera hori. Haatik, *Jakin*-entzat egin dudan lehendabiziko idazlan honekin asmoa daukat zuberotar gisako gure berezitasunak ez duela bereizkuntza erran nahi azaltzeko. Horretarako, bizpahiru gairen aipatzetik eta aztertzetik joko dut.

Nire lankidetzaren gauzatzeko erabilgarri nituen gaien zerrendan agertzen ez den gertakari batetik abiatuko naiz. Nahiz eta oraingoz, gertakizun hitza erabiltzea zego- kion, zeren eta ofizialki gertatu ez, baina gertatzekotan baita. Euskaltzaindiak, Zuberoako herrien idazkera «berria» onartzeaz mintzo natzaizue. A, zelako borroka ez du- gun eraman, azken urte hauetan, euskararen eta euskal kultur lanen inguruan gabiltzanok! Eta zertarako borroka hori, bada? Beste euskal herrialdetako euskaldun guztien- tzat arauzko direnak guretzat ere erregela izan zitezten, bes- terik ez. Ezen, ikastoletan, gau eskoletan, hedabideetan, itzulpengintzan edo plazaratu beharreko edozein idazlane-

tan jarduten dugun Zuberoako euskaldun alfabetizatuentzat zinez mingarria zen ikustea Euskaltzaindiak zubererarekiko eta, batez ere Zuberoako herrien idazkeraren kontuarekiko zeraman jokabidea.

Aurretik zehaztu ditudan sailetan gabiltzan euskaldunontzat ulergaitza, tamalgarria eta onartezina ere zela erran nezake, Euskaltzaindiak, gure berezitasuna bereizkuntza bihurtu zuela hautemateak. Nola besterik azaldu zitekeen Euskal Herriko beste herrialde guztietan idazkera arau bezala finkatuak direnak, guk, Zuberoan, jarraitu ez beharra? Hizkuntza aditu eta arau egile gisa, nola ontzat eman, Zuberoan, ahomintzozko *H*-ak atxiki beharra edota *ea* idatzi beharrean *ia* izkiriatzea? Esaterako, nola onartu *Phagola* eta *Sarrikota Gañia* bezalako itsuskeriak, Zuberoako herrien zerrenda ofizial hartan bertan Lakarri idazkera egoki emana zelarik (alta bada, Lakharri ahoskatzen dugu...). Nolako seriotasuna ematen zion Euskaltzaindiari Berrogañe idazteko aholkua emateak eta berrogañtar bezala ematea hango bizilagunak?!?

Hala ere, makurbide orok badute, egun batez, beren bukaera eta Euskaltzaindiari, azken batez, Zuberoan, euskalgintzan gabiltzanoi arreta egitea gogoratu zaio. Hemenetik aurrera, beraz, Zuberoako herrien izenak idazkera arautuan agertuko dira hedabideetan eta ez dugu jasan behariko, nik behintzat, folklorismo hitzaz definitu dudana jokae-ra. Izan ere, idazkera fonetiko edo erdi fonetiko haren atxikitzeak bazeukan sasi-azalpen bat, hau da, Zuberoan, *H* horien ahoskatzeko ohitura ez zela galdu behar. Beraz, idazkerak behar zuen ahoskeraren araei egokitu eta ez alderantziz. Zein hizkuntzatan ikusten da holako araurik finkatzea? Pentsa dezagun, esaterako, frantsesari aplikatzea sasi-arau hori... Ederrik balitzateke, benetan, hain baita handia, sarritan, frantses hizkuntzaren ahoskera eta idazkeraren arteko aldea. Euskaltzaindiko onomastika batzordearekin izandako bileretan, oso iritzi berezia aditzerat eman zuen ere gonbidatu batek, hots Atarratze edo Zunarreta herrien kasuan *H* fonetikoa mantendu behar zela idazkeran... hango jendeentzat onargarriagoa zelakoan! Onargarriagoa! Hau zer hizkuntza arau mota ote da? Noiz-

danik hizkuntza baten aurakatzea egiten da, hau edo hori onargarria ala gaitzesgarria delakoan?

Euskara «diskriminagarri» daukaten euskal herritar horiek

Atarratzez mintzatzen hasia bainaiz, aurrera joko dut eta atarratzen askoren euskararekiko gutxiespenaz arituko naiz. Jarrera honen argibide bat gehiago izan dugu berrikitan, hain zuzen ere, «saltegiak ere euskaraz» kanpainaren barruan, Atarratze eta Mauleko merkatari guztien ikusterat ibili garelarik, euskarari leku bat ematea onartuko zutenez jakin guraz. Mauleren kasua, laburki aipatzeko lehendabizi, aurrenez ongi genekiena egiaztatu da tamalez, hau da mauletar denda jabe oso gutxik (bizpahiruk) dakiela euskaraz eta, hortaz, kanpaina horretan esku hartzea ezinezkoa zaiela. Alabaina, zin-zinez hori pentsatzen dutenez ez bada ziurtatzen ahal ere, euskararik ez jakitea dolugarritzat daukate eta minez bizitzen dutela aitortu digute batzuek. Ikastea, haatik, oso neketsutat ikusten dutela gaineratu digute, denbora eskasia aitzakiatzat harturik, kasu gehienetan. Horra Mauleko egoera eta tamalgarria bada ere, ulergarria da behintzat, Mauleko bizilagun ugari —eta merkatari gutiz-gehienak— kanpotik etorritakoak baitira. Kanpotik erraiteak ez du erran nahi atzerrietatik datozela, zeren eta mauletar asko nafar jatorrikoak baitira, baina nafar erdaldunetakoak. Maule erdaldunak badauka, beraz, sustrai historikorik.

Atarratzeri, aldiz, ez zaio estakuru hori onartzen ahal, herri honetako bizilagun gehienak, baita merkatariak ere, euskal jatorrikoak baitira. Euskal Herrikoak bai, duda barik, baina euskaldunak ez, ezta nahi ere. Iritzi gogorra iruditzen bazaizue ere, ziorik badaukala natorkizue frogatzerat. «Saltegiak ere euskaraz» kanpaina izanen zela, eskutitz bat helarazi genien Maule zein Atarratzeke merkatari guztiei. Maulen, jada erran dudanez, harrera ona jaso genuen... baina Atarratzen! Euskararen sustatze lanetan diharduen Sü Azia elkartekook igorri genien gutunari, oso

suminduta erantzun diote atarraztar merkatarien batasune-koek. Haien «harridura eta amorrazioa jakinarazi» nahi ziguten eta, «pentsaezinezkoa» zela euren baimena eman zezaten «euskara ez dakitenentzako kaltegarria litzatekeen ekitaldi diskriminatzaile bati». Hori bera! Hargatik, atarraztar merkatari hauek «euskarari begirune handiena» diotela segurtatzen zuten, nahiz eta «nahasketa eta bereizketa besterik eragin ez zezakeen egitasmo hori berehala bertan behera uzteko» eskatzen ziguten...

Euskararekiko lotsarik ez baina, hala ere, peko errekarat goaz

Zinez diotsuet ihardokitze horrek ez ninduela ezustean harrapatu. Atarratzetik sei kilometrotan kokatutako Etxebarre herriko seme naiz eta betidanik sumatu dut Atarratzeko merkatarien munduak gutxiespenez hartu duela bere inguruko nekazari mundua. Atarratzarrak beti izan dira guretzat «hühü handiko jankillot frantximantak» eta hau ez da gaur egungo kontua, euskara aspaldidanik baztertua baita Atarratzeko saltegietatik. Hala ere, atzoko eta gaurko giroak bai badaukala ezberdintasun nabari bat. Atarraztar merkatariak ohartu egin dira, gutxi edo aski, euskaraz karrikan hitz egitea «lotsagarria» zen garai haiek atzean dardela, euskarak, nola edo hala, bere duintasuna berreskuratu duela. Ez bakarrik, Hego Euskal Herriko euskaldunak etortzen ikusi baitituzte, bai ordea, Ipar Euskal Herriko euskaltasuna zein abertzaletasuna sendotu egin baitira. Eta hain zuzen ere, nire ustea da Atarratzeko «frantximantek» nolabait gaizki bizitzen dutela egoeraren bilakaera hori, hots euskaraz jakitea beraiek ez daukaten zerbait gehiago dela eta ohartze horrek diela min egiten.

Euskara, beraz, ez da gaur egun lotsaz hartzeko gauza gure Ipar Euskal Herrian. Bai baina, hara paradoxia kezka-
garria, gaur egun atzo baino gutxiagok hitz egiten dugu euskaraz. Zuberoako kontuekin jarraitzeko, demagun euskaldunenik bezala hartua den herri bateko karrikan gabiltzala, esaterako Altzain edo Altzürükun aurkitzen gabela.

Denbora gutxi behar izango dugu ohartzeko belaunaldiak gero eta gazteagoak izan, orduan eta euskara gutxiago ematen dutela. Egun, 10-12 urteko gazte bat euskaraz hitz egiten entzutea Zuberoan, ia mirakulutik dago. Are larriagoa, txikitatik erdaldun gisa hezitzen dira haur horiek eta, gurpil zoroarena ezin geldiarazirik, haur eta gazte erdaldun hauek are erdalduntzenago dute ingurugiroa, euren etxekoetatik hasita. Horiek horrela, Zuberoa mitikoa, euskal kulturaren gotorleku ezin hartutakoa, mito hutsa dela argi geratzen da. Euskararen beherakada itzelaren kontutik, Ipar Euskal Herriko beste bi herrialdeei alderatuta, ez dugu berezitasunik... Peko errekarat goaz guztiak.

Euskararen gizarte eta ekonomia baliagarritasuna bultzatu

Hara egoeraren oharpena baina heriozvide honi nola aurpegi eman? Ez dut mirakuluzko errezetarik baina uste dut jokabide egokienetatik bat izan daitekeela euskararen zokoratzeko baliatua izan den argudio nagusi bat alderantziz erabiltzea lortu behar genukeela. Euskarak ezertarako ez zuela balio sinetsarazi zieten gure aitetamei, frantsesa zela aurrerakuntzarako eta lorpenerako hizkuntza, alegia. Alabaina, nik uste dut gaur badela garaia eta aukera, alderantzizkoaz gogorarazteko, hau da euskaraz jakitea dela erdaldunek ez daukaten zerbait gehiago. Euskaraz jakiteak aukera eta ahalik ematen duela Euskal Telebistari begiratzeko eta ulertzeko, Hego Euskal Herrikoekin harremanak edukitzeko eta, egia baita ere zenbait kasutan, lanpostu baten lortzeko. Azken finean, euskarari begira herabe direnak (etsai amorratu daudenak konbentzitzea alferrikako lana da, ordea) euskararen aldeko jarrerara ekartzera saiatu behar genukeela.

Ororen buru, euskarak gizarte eta ekonomia baliotasuna badaukala onartarazi behar diogu euskal jendeari. Hemen da, beharbada, berreskalduntzerako xedean, Zuberoan pairatzen dugun okerren bat, hau da, kultura alorreko osagai gisa ikusia dela bakarrik euskara eta ez gizarte

eta ekonomia harremanetarako bitarteko bat bezala. Ohar-kuntza hori gizartean nagusiaraztea oso bide luzea izanen da baina, nahitaez, horretarako urratsak behar ditugu eman. Horretarako ere, beste euskal lurraldetatik ez gara bereiztuta egon behar eta eredu gisa ere baliatu behar ditugu, euskararen ofizialtasun egoera berri emanda. Badakit eskas ugari eta euskararen kalterako jokaera asko daudela, bai Euskal Autonomi Erkidegoan zein Nafarroako Foru Erkidegoan, baina, hala ere, euskarak estatutuak badauzka, hobetu beharrak baldin badira ere. Oraingoz, horretatik oso urruti gaude Ipar Euskal Herrian, kontu hau lotuta baita gure onarpen juridiko-instituzionalari. ¶



Josemari Velez de Mendizabal

Partida garrantzitsu baten auditoria

Ekonomia tiro bat bezain azkar doa zioen, arestian irakurri ahal izan dudan txosten batek. Badirudi, kalifikatibo guztiak (bikain, ikaragarri ongi, eta abar) agortuta direnez gero balistikari heldu behar zaiola irakurle interesatuarengan sentsazioaren maila behar bezala adierazteko. Eta horrela, hitzen esanahia hain abiadura handiz desbaloratzen ari zaigun une hauetan, badira gure begien aurretik denetarikoz kontzeptu berriak igarotzen, oinarritzko balioak non aurki daitezkeen ahazten hasiak garela ondorioztatzen digutenak.

Urtero bezala, aurtengo kultur balantzeari buruz le-
rro batzuk idaztea eskatu zait eta, aurtengoz behintzat, ni-
re ekarpen labur honekin erantzungo dut, eskabidea luzatu
zidanaren asmotik urrun xamar geratzen banaiz ere.
Baina, ez zait iruditu bidezkoa nuenik, urteak ekarri dizki-
gun albiste solte eta margoaskotarikoak berriz ere haiza-
tzea, beste batzuek nik baino askoz egokiago egin baitez-

kete lantegi hori. Ezagutzen nauen edozeinek dakien bezala, epe luzerako inbertsioak dira gustokoen ditudanak eta, epe laburrekoei muzin egiten ez diedan arren, gau bakar bateko loreek ez didate loa galbideratzen.

Orain hurrengoan, George Soros ifarramerikarrak zioen bezala, merkatuko balioak ez dira —aberastasunaren iturri bezala— euren sustraiak lur azalean dituztenak, sakontasun sendokoak baino. Greziar klasikoek ohi zioten legez, obietateak ere sarri errepikatu behar dira, ahaztuko ez bazaizkigu. Horrexegatik iruditu zait komenigarri sarre-ra hau egitea, ondoko lerroetan balioztatuko dudana, seguru nago, zenbaki honetan lankide ditudan beste lagunek ezertarako aipatuko ez duten kapitulu bat baita, Euskal Herriko kultur balantzearen ibilgetuko partida garrantzitsua, gainera.

Aurrera baino lehen, diodan, badakidala Soros jaunak pilaturiko altxorra, hein handi batean, espekulazioari esker lortu dela. Horrek ez du esan nahi, haren ahotan ipini dudan baieztapena errealitatetik kanpo dagoenik. Gerta litekeena da, Soros jaunak —bere kontzientzia arazo batenegatik— Sudango goseteria arintzeko diru apur bat inbertitzea lurralde hartan. Baina horrek ez du goseteriak munduan pairarazten dituen emigrazioen auzia konpontzen. Edozeinek daki —edo jakin beharko luke— desoreka ekonomikoak bortizkeria sortarazten duela eta egiazko solidaritateak bake prozesuan adreilu berri bat jartzen duela. Gure artean ere, egunero erabiltzen ditugun aldagai eraginkorren espektrua irekiagoa egin beharko genukeela iruditzen zait, betiko kurpil ero bezain etsigarrian gal ez gaitzen. Hori dela eta, urteko balantze txosten honetarako aukeratu dudan aldagai eraginkorrek ez du zerikusirik, aldizkariaren erredakziotik planteatu zaizkidan balizkoekin. A! Eta deskribapen soil bat besterik ez dut egingo, ezelako balioztatpenik gabe, ariketa hori irakurleari utziko diodalarik.

1998an bere lauorgeigarren urtemuga bete du Eusko Ikaskuntzak, ospakizunak komunikabideetan izandako oihartzunarengatik efemeride horren berri, batez ere «etxekoen» artean geratu den arren. Baina, hala ere, erakundearen «akzioen» balioak aurtengo jardunaldi osoan

zehar gorantz egin du, askotan erakutsi den bezala enpresaren emaitzak eta jardunaren gaineko haizapen publikoak ez baitute derrigorrez elkarren ondoan joan behar. Arago, benetako enpresariak jendaurreko tribunetatik urrun ibili ohi dira, eguneroko ariketa gogorak ez baitie astirik ahalbidetzen agerpen publikoetarako. Bost urte jarraian Eusko Ikaskuntzaren balantzeak sendotasunaren irudia islatu du, eta iragarpenek hodeiertz itxaropentsua erakusten dute. Eta, noski, perspektiba horrekin lan egin ahal izatea abantaila handia da, enpresan lasaitasunezko giroa nagusitu baita, ezinbestekoa, hain zuzen, inbertsioetako plangintza aurrera eramateko.

Bost urte interesgarri bizi izan ditu Eusko Ikaskuntzak bere hirurogeita hamabosgarren urtea bete zituenetik. Egitura sendotu du, ikerlanerako azpiegitura indartuz, eta horretara, gezurra dirudien arren, egitura kostoak handitu gabe heldu da. Nola lortu du? Garbi dago, eta ikusten ez duena ikusi nahi ez duelako da, jarduera eremuko kostoak ez duela beti produktuaren prezioarekin intzidentzia zuzena izan behar. Eta horixe bera erdietsi du erakundeak, jarduera maila ia ia hirukoiztuz, eta egitura gastuak murriztuz. Ez dago miraririk. Kudeaketa zuzen eta burutsu baten ondorioa izan da dena.

Gaur egun, Eusko Ikaskuntzaren urteko aurrekontuetako % 80a inbertsioari eskaintzen zaio, gutxi gorabehera, ikerkuntza eta hezkuntza programek berez dituzten gastuak finantzatzeko, alegia. Diru-iturrien egokitzapenak jardueraren hedakuntza nabaria ekarri du, batere zailtasunik gabe. Eusko Ikaskuntzako lehendakaritzak bete-betean asmatu zuen orain dela bost urte, elkarreak eraman beharreko plangintza diseinatu zuenean. Eta *zirkunstantziek* biziki lagundu diote jarduera-martxari abiadura egokia ematen. Zirkunstantzia horiek huts egingo balute, Eusko Ikaskuntzaren lan eskemetan murrizketak aplikatu beharko lirateke,... ezelako traumarik gabe. Neguko kuarletek itzuliko litzateke, eguraldi hobearen zain. Hori bai, pena emango lioke horrela egin behar izatea, kalitatezko produktua baita berea, lehiakiderik gabea, eta gainera merkea. Baina, beude lasai zenbait euskal erakunde publikotako ardura-

dunak!!, Eusko Ikaskuntzaren diru-iturrien balizko murritzetak ez bailuke erakundea atez ate joka ibiltzera behartuko, gutxieneko kostoa —hau da, egiturakoa— bere bitartekoekin finantzatzen baitu elkarteak.

Eusko Ikaskuntzaren aktiborik garrantzikoena bere bazkidegoan bilatu behar da. Azken bost urte hauetan 500 izen gehiago azaldu dira bazkideen zerrendetara, gaur egungo kopurua hiru mila kide izatera heltzen ari delarik, hamabost Lan Sailetan banaturik. Bazkide gehien dituen Saila Historia eta Geografiakoa da, 700 ingururekin. Hala ere, badira proportzionalki hazkunde azkarragoa erakusten ari direnak, Natur Zientziak Saila, adibidez, zenbaki absolutuetan oraindik historiegileetatik urrun xamar dau-den arren.

Bost urte hauetan izandako bazkide berrien jarioak, bazkide osoaren bataz besteko adina 35 urtetan jarri du. Eusko Ikaskuntza, euskal ikasketen arloan lan egiteko asmoa azaltzen duten gazteen topagune bat bilakatu da. Diren bekarioen adin maila ez da 25 urtetara heltzen. Hau da, belaunaldi berri baten agerpen ilusiogarria aurrekoen esperientzia frogatuarekin uztartu da. Adierazgarria eta guztiz itxaropengarria, beraz, euskal kultura eta zientziaren garapen integralerako. Aurtengo uztaila eta iraila bitartean, Eusko Ikaskuntzaren egoitza nagusia den Donostiako Miramar Jauregian eraturiko erakusketara 3.000 gazte baino gehiago hurbildu ziren, data horietan EHUko Udako Ikastaroetan parte hartu zutenen kopuru erdia, gutxi gorabehera. Eusko Ikaskuntzak zer eskain diezaiekeen erakutsi nahi zen. Gazte horietako hainbatek bazkide izateko aurreinskriptzioko orria bete zuten.

Ikerkuntza eta hezkuntza programak dira nagusi Eusko Ikaskuntzan. Eta horien ondorio gisa, publikapenak. Eusko Ikaskuntza, berez, ikerketa erakunde bat da. Gaur egun, 160 bekario inguru ari dira beren ikerlanak burutzen. Erakundeko Lan Sailek aldarrikatutako dirulaguntzak ezezik, hainbat egitasmo enblematikok ere osatzen dute ikerkuntzako esparrua. Ikerlanak mota askotarikoak dira, Eusko Ikaskuntzak betetzen dituen arloetara egokituta. Lanak amaitzean, aditu talde batzuek haien kalitatea

neurtzen dute eta, egokia iruditzen bazaie, publikaziorako aholkua luzatzen diete, dagozkien Argitalpen Batzordeei. Horrela, publikapenen zerrenda 40 titulutaraino iristen da urtero, horien arteko ugarietak Siletako Kuadernoak di-relarik. Baina ezin dira ahaztu, beren garrantziarengatik, beste zenbait bilduma: RIEV, Fuentes Medievales, Lankidetzan, Eleria eta Kongresuak, besteak beste.

Zer esan daiteke hezkuntzari buruz? Bada, inork ezin zuela espero orain dela bost urte Eusko Ikaskuntzaren eskaintzan hain urruti iritsiko zenik. Euskal ikasketei dago-kienez, 1996tik errealitate sendoa den «Jakitez» izeneko programak 115 irakasle inguru biltzen ditu EHUK bere egin duen ikastarora. Euskal ikasketak eta zientzia kultura sustatzeko programa hau 250 ordukoa da eta Euskal Herri osoko ikasleak hartu ditu orain arteko hiru edizioetan. EHUren babesa lortu duen beste ikastaro erakargarria «Lurralde Antolakuntza»-ri buruzkoa da, Euskal Autonomia Erkidego, Nafarroako eta Iparraldeko goi mailako adituen zuzendaritzapean taxutua. Ikastaro praktiko bezala disei-natua, erantzuna eman nahi die, hiru administrazio des-berdinen arteko deskoordinazioak sorturiko galdera askori.

Ikastaro presentzialak alde batera utzita, hazkunde eta inpaktu ikusgarria izan dutena, Internet bidez inparti-tzen ari diren bi Masterrak ditugu. Lehen aldiz euskal hez-kuntza-eskaintzaren historian, irakasle eta ikasleak sare elektronikoen bidez daude lotuta eta horrela jarraitzen dituzte bi aldeek, Masterretako seirehuna orduetan zehar. Ikastaro hauek Europa eta Ameriketako ikasleak biltzen dituzte eta amaieran EHUren titulua lortzen dute euren etxeetatik mugitu gabe, baldin eta jartzen zaien elkarrera-ginezko azterketa gainditzen badute. Horretan ere Eusko Ikaskuntzak aitzindaria izatearen bokazioa erakutsi du, zirkunstantziek ahalbidetu dioten bezain laster. A! Ikasta-roak autofinantzatu egiten direla adieraztea falta zitzai-dan. Horrek esan nahi du, inoiz errentagarritasuneko mailara ez balitz ailegatuko, bertan behera geldituko lira-tekeela. Datorren ikasturterako (1999-2000) beste bi Mas-ter ari dira preparatzen, funtzionamenduko koordinada berdintsuekin.

Aipatu dut, beraz, Eusko Ikaskuntzak sare telemati-koak erabiltzen eskaintzen duen zerbitzua. Baina gauza ez da horretan geratzen, ezta urrik ere. Interneteko bere zerbitzaria 1996. urteko ekainean abian jarri zuenetik, urrats erraldoiak eman ditu aurrerantz, teknologia berrien ezarpenean. Astero-astero bi mila sarrera baino gehiago kontabilizatzen zaizkio zerbitzariari, estatistikako neurgailua-ren bitartez. Mundu osoko bisitak dira, egundoko dokumentazioa eskuragai dutenak. Adibidez, 1997ko azaroan izandako Eusko Ikaskuntzaren XIV. Kongresuari irekitako leihoari 25.000 sarrera zenbatu zaizkio urtebetean. Ez da txantxetako marka, ez alajaina!

1998ko irailean, Eusko Ikaskuntzak beste proiektu berri-zaile bati ekin zion, hori ere sare telemati-koaren bidez munduratu. *Euskonews&Media* deritzan euskal zientzia eta kultura aldizkaria astero agertzen da www.euskonews.com helbidean, denetariko edukiarekin. Honez gero baditu 800 bat harpidedun, doanekoak, e-mail bidez astekariaren sumarioa ostiralero jasotzen dutenak. Sarrerak, berriz, lehen-dabiziko lau hilabeteotan, 1.500 inguru kontabilizatzen dira astero. Aldizkariaren bokazioa autofinantzagarrria bilakatzeara da.

Oraindik ez ditut aipatu, bost urte hauetan izandako bi Kongresu apurtzaileak; Euskal Herriko lau irratitan di-tuen asteroko irratsaioak; Euskal Herriko lau Unibertsitate-ekin sinaturiko hitzarmenak (Mondragón eta NUPa falta dira oraindik); urtero Basque Visiting Fellow bertan ari dadin, Oxfordeko Unibertsitatearekin dagoen akordioa; «Añamendi» argitaletxearekin, izen bereko entziklope-diaren eguneratze lana burutzeko eta edukia sare telemati-koan jartzeko izenpeturiko ituna (dagoeneko, paperez argi-taratutako guztia gertu dago edozein unetan Internet-etik emateko); elkartearen argazki artxiboaren digitalizazioa; Manuel Irujo, Manuel Lekuona eta Angel Apraiz zirenen dokumentazioaren katalogazioa. Eta abar.

Joseba Agirreazkuenaga katedradunak, bere azken publikapenetako batean¹ dioen bezala,


Eusko Ikaskuntza, euskal ikasketetan interesaturik dauden ikertzaileen topagune bat da eta 1918ko helburuak inda-

rrean daude gaurregun ere, orduan bezain gaurkotuak, laurogeitamargarren hamarkada honetan, bere kultur nortasuna sendotzen lagundu dion hazkunde ikusgarriak darakusan bezala. Mundializazioak, nortasun sistemak sare propioekin indartzeko beharra ekarri digu, maila guztietan. Eusko Ikaskuntza aukera paregabea da, euskal ikasketan barrena abiatu nahi duten ikerle gazteentzat.

Azken orduko txosten ekonomiko batek dioenez, Europako hazkundea % 2,9a izango da 1998rako eta 1999rako % 2,5a iragartzen dute. Nire idazki heterodoxo honetan aipatu ditudan zirkunstantziek utziko baliote, Eusko Ikaskuntzak erritmo horretan haztea ontzat joko luke. Baina, kontrakoak balitu eta eragozpen gaindiezinak berriro ere bidera aterako balitzaizkio, elkartearen lehendakartzak garbi du zer egin behar duen: jarduera gutxieneko mailara jaitsi, hau da autofinantzazioaren bitartez ahalbideturiko esparrura mugatu.

Urteko balantzearen gaineko hausnarketa eskatu zitzaidan eta, horri ekin beharrian, euskal zientziaren arloko «partida» garrantzitsu baten auditoria nahiago izan dut burutu, askotan adarretatik galtzen baita pertsonala. Nik ez banu horretan jardun, inork ez zukeen ezta aipatu ere egingo. Eskerrik asko. ♣

1. Eusko Ikaskuntza: Hiztegi Biografikoa (1918-1998).



Pello Zabaleta

Urte bateko kultura

Nor gehiago, nor hobe: nor garaiago, nor azkarrago, nor indartsuago. Saria eman ohi zaio irabazleari. Horretarako

daude urreak eta zilarrak eta brontzeak. Ez dira ordea aha-
legin eta egintza guztiak neurri berekoak. Eta zilarraren or-
dez, disimuloan, xafla eman beharko litzateke zenbaitetan.
Jakin egin behar da, beraz, zilarraren eta xaflaren artean
bereizten. Halere zer den zilar eta zer xafla, ados jartzen ez
da batere erraza.

Urte bateko kulturaren era guztietako aurpegiak ikus dai-
tezke: barneari begiratu batzuk ederrak, itsusiak besteak.
Axalari begiratu, ederrak batzuk, itsusiak besteak.

Nahasmahasa ere izan ohi da kultura, eta nahasma-
has gisan joango da honoko gogoeta —baldin gogoeta ba-
da.

Urte bateko kulturaren Guggenheim dago gailurrean,
harro eta hegan, zenbaiten ustetan, astun eta zapaltzaile
besterenetan. Hasiara batean kontra zeudenek —geunde-
nek— azkenean onartu egin behar omen dugu oker gen-
biltzala, eta Guggenheim mesederako izan dela guztiz.
1.400.000 bisitari izan ditu urtean zehar —lehen urtean—
Guggenheimek, eta presupostuaren neurri handi bat or-
daindua omen du.

Pozteko dira gauza hauek guztiak, baina ez daukagu
zertan amore eman beharrik gure hasierako ustean: erre-
mediorik ez duen eraikuntza da orain Guggenheim, eta
poztuko ginateke zorrik utziko ez balu (ikuskizun dago ho-
ri, eta urteek esango dute gaur barruan daukan arteak gaur
daukan arrakasta etorkizunean ere ba ote duen), kulturak
behar duen diru gehiena berak xahutu gabe.

Bego, beraz, Guggenheim —alemanez, kukuaren etxe-
an-edo, edieraz lezake hitzak, eta eskarmentu oso txarra
daukagu euskal tradizioan kukuaz eta txepetxaz, guri toka-
tu baitzaigu txepetx izatea kasu honetan—.

Bigarren aipua, telebistari bihoakio. Euskal telebistari
txoria ipini diote sinbolo, eta batek zalantzak ditu ez ote
den pajaroa. Gure kulturaren seinale izango da, agian, eus-
kal telebista, amets izan zen behintzat jaio zitzaigunean.
Agintarien kontura esaten dena esan beharko da, beharba-
da, telebistaren kontura ere: alegia, merezi dugun telebista
daukagula... edo behinolako burutxo batek esan zuen be-
zala, herri honetan ezin egin daitekeela hoberik.

Aspaldi ikasia dugu entretenigarri izan behar duela te-
lebistak, ezer izatekotan. Ahalik eta ikuslerik gehienak era-
karri behar dituela. Ez duela inor aspertu behar —ahalik—.
Guztientzat izan behar duela, goimailako eta behemailako
berezi gabe. Auzia, ordea da, ea diren guzti horiek —denak
alegia— beti berberak diren eta beti hala izan behar duten;
guztien artean ez ote diren kabitzen gustu guztiz arrunte-
kin, umore primario batekin aski ez dutenak.

Jakin nahi nuke bertatik zenbat idazle, musikari —se-
rio, ez xafla, zilar baino—, pintore, arkitekto, ikerlari, antro-
pologo —ihauterietan salbu— ezagutarazi dituen gure
leihotxo benetan ergelak. Jakin gaztelerazkoan zenbatetan
eman duten euskarazko kulturen berri —egunon esaten ika-
siak dira esatariak, eta kontsolatzen bide dira horrekin agin-
tariak—. *Goenkale* egunean hiru bider emateak zenbat la-
guntzen dion gure kulturari. Gai serioak ez omen du ikusle
arrunta erakartzen —zenbateko froga egin ote dute. Komen-
tziturik utzi gaituzte kirolak ere kultura direla, eta gure he-
rriko kultura sakona gainera. Ez dakigula falta hortik!

Hirugarren ipini dezadan berez lehen lekuan behar
lukeen Unibertsitatea. Ametsik handiena izan dugu eus-
kaldunok Unibertsitatea urtetan, mendetan ez esatearren
—telebistarik ez zegoen garai guztian. Euskaraz ari da, bai,
neurri handi batean, eta ekarri ere badakar kultura herrira,
herritarrak hezitzen dituten neurrian, bederen.

Baina —honek ere badu baina bat— apenas duen era-
ginik unibertsitatetik kanpora daudenen artean. Ikastaro
batzuk antolatu ohi ditu uda partean, edo hitzaldi gutxi
batzuk urtean zehar. Unibertsitateko irakasle zenbaitek
idatzi ere egin ohi du egunkarietan. Apenas sumatzen den,
ordea, eragina eguneroko bizitzan, ez bada handik pasatu
diren irakasleei esker eskoletan eta ikastetxeetan.

Ez da guztia xafla: zilarretik ere badago, batez ere eus-
kal letren munduan. Aipatzekoak dira Klasikoak saila eta
Literatura Unibertsala saila. Saio biak itzulpen dira: geurean
sortu ezinik, kanpotik ekarri duguna. Bi kasuetan, ordea,
gauza bat dago azpimarratzekoa: ez frantsesaren ez gazte-
leraren menpe sorturiko pentsamendua —eta hizkera— ari
garela euskaratzen. Hau da: morrontza ekarri baino gehia-

go, irekitasuna ekar diezaguketen alorrak direla biak, bai literaturakoa bai pentsamenduarena. Eta hori —nik ez dut zalantzarik egiten— euskararen mesederako izango da, euskaltzaleon mesederako den bezala, geure euskara bar-netik ernaldu egiten baitu.

Klasikoak eta Literatura Unibertsala aurreko urtetatik datorren ur gardena da. Aurten, ordea, *Jakin*-ek jo duen ahalegina ekarri behar da gogora: «Jakin Irakurgaiak» sorta oraindik xumea da, baina filosofiako testu inportante ugari datoz euskaraturik. Ez unibertsitateko premiak asetzeko pentsatua dago sorta, pentsatzen ari denak zer pentsa oinarrizkorik izan dezan baizik. Liburu txikiak dira, baina ez dira xafla, aldiz bai zilar.

Liburuekin ari naizenez, adar oso bat falta zaio oraindik euskal liburugintzari, Gaiak sailak neurri batean osatzen duena: kultura orokorreko liburua alegia. Adar hori oraindik biluzik dago euskaraz behintzat, eta aspaldiko ametsa izanda ere, oraindik egiaztatu gabe dago. Badakit ez dela sartzen hau urte bateko kulturaren: urte gehiago behar dituela, eta apaltasun handia lan horri heltzeko. Gure institutu eta lizeoetan dabiltzan batzuk eskertuko lukete, ordea, nekea.

Kultur erakundeak ugari dira euskal herrietan zilarrezko kulturaren alde lan egiten dutenak. Txikiak batzuk, handiak besteak, lurralde osoa hartzen dutenak, alegia. Aranzadi elkarteak, esaterako, aldakuntza handia izan du aurten: egoitza aldatzearekin batera, etorkizuna argiago dauka: San Telmo Museoko pasilotik Zorroagako «palazio-ra»: lehenago zapata kaxatan zegoen materiala, denon agerian dago orain.

Eta, gainera, iragarri den bezala, Zientziaren museoa Miramongo lurretan eraikiko balitz, txango interesgarririk egiteko modua izango litzateke bakearen usotik gora: futbola, pilota, txirrindulariak, zezenak eta zinema, denak agerian; ezkerretara Aranzadi Zorroagan erdi ezkutaturik. Gorago, klinikak. Eta gorago oraindik irratia eta telebista tontorrean, eta bazterretxoagoan Zientziaren museoa.

Eta museo apalagoen aipamena eginez, arrakasta zinez handia erdietsi duen erakusketa antolatu du Bilboko

Artederretako Museoak: Sorolla eta Zuloaga ipini ditu elkarren ondoan, bi artista handiak bizi ziren garaian lortu ez zena azkenean lortuz.

Kultur hiri asmotan dabil oraindik Donostia: Moneoren obra aurrera doa, eta aurten ez bada datorren urtean prest egongo dira Groseko hondartzan bi eraikuntza zu-riak, hondoa jotako haitz gotor gisan. Marmarioak entzuten dira, noski, obra honen inguruan... baina amai dadinean ikusiko da eta igarriko onerako den hala diruhobi hondogabeko den. Auditorium erraldoi bat agintzen da handik. Hainbat merkatarik jakinarazi omen du bestalde eraikuntza horretan duen interesa.

Dagoeneko miresmen bihurturik dagoena Aquarium berria da: marrazoak falta dira, baina itsasoetan dabiltzan gainerako piztia guztiak aterbeturik dauzkate. Ikusmin soila ote? Jatorri dugun itsasoaren ikerketa ote? Gustura ego-teko toki ote? Xafla edo zilar, zer ote urte bateko kulturari?

Eta bitartean —kulturak dituen berezko jokaera harri-garriak beharbada, edo herri batek bere kulturaz zer egin nahi duen nola markatzen den seinale— euskarazko antzerkiak behera egin du Donostian. Gero eta emanaldi gutxiago aurki daiteke euskaraz Donostian, eta egunik okerrenetan jarrita gainera. Kultur arduradunen zabarkeria? Euskal hiztunen utzikeria? Baldin euskara bada gure kulturaren ezaugarri nabarmenena... to, hartzak ziria!

Urte bateko kultura ez da orain arte ekarri dudan erretolika: gehiago ere bada, jakina. Baina, jauzi hona jauzi hara, gure mixeraren —batzuetan urreztatua— karikatuta bada. Besterik ezean. ♪

Liburuak



JOAN MARI TORREALDAI
Euskal liburugintza 1997

77